

I.BERDINTASUN PLANA

Gorbeialdeko Kuadrilla

2019-2022



Gorbeialdeko
Kuadrilla
Cuadrilla de
Gorbeialdea

Gorbeialdeko Kuadrillako
Emakumeen eta Gizonen
Lehenengo Berdintasun
Plana.

AZARO hotz BATEAN, Gorbeialdeko Kuadrilla justu eta ASKE BAT nola lortu pentsatzera etorri zineten guztioi. Gure Galderei erantzun zenutenoi. Bere lanean eragina daukan generoari buruz hausnartzeko denbora eman duten langileei, Alkateei eta Kuadrillako presidenteari, parte hartzeagatik. Gorbeialdean Berdintasunerako bidea ibiltzen ari zaretenoi eta datozen lau urteetan gehituko direnoi MILA esker.

Proiektu honen zuendaria eta koordinatzailea:



Gorbeialdeko
Kuadrilla
Cuadrilla de
Gorbeialdea

Aritz Palaracios.
Gorbeialdeko Kuadrillako
Berdintasun Zerbitzua.

Aholkularitza:



Helena Ortiz de Lejarazu.
Red Kuorum S.L.
2018ko abenduan.

Babeslea:



Emakunde - Instituto
Vasco de la Mujer.

Babeslea:



Arabako Foru Aldundia.



AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
1. AURREKARIAK, ERREFERENTZIAK ETA LEGEDIA.....	5
2. PLANA EGITEKO PROZESUA	9
3. PRINTZIPIOAK ETA BERMEAK.....	13
4. KOORDINAZIO AZPIEGITURAK: GENERO ARKITEKTURA.....	17
5. I. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA	25
6. GOBERNU ONA.....	26
7. ESKUHARTZE ARDATZAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNEAN.....	34
8. GORBEIALDEKO KUADRILLAKO I. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIOA.....	53
9. NEURRIAK GAUZATZEN: EKINTZAK, ADIERAZLEAK, ARDURADUNAK ETA KRONOGRAMA.....	55
I ERANSKINA_ KUADRILLAKO PLANA UDALERRIETAKO ERREALITATEARI MOLDATZEA.....	76
II ERANSKINA_ 2019 PROGRAMAZIOARI EGOKITUTAKO AURREKONTUAK.....	126

SARRERA



Irudia 1: 2018ko azaroaren 16an Zúria egindako lan dinamika

Gorbeialdeko Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasun Plana, Aramaioko, Zigoitiko, Legutioko eta Zuiako Berdintasun Planen diagnostikoa eta ebaluazioaren ondorioa da: lortutako aurrerapausuak, erronkak eta egungo egoera kuadrilla osoan zehar, Arratzua-Ubarrundia eta Urkabustaiz barne hartuz. Horregatik, lehenengo bi atalek aurrerariak, erreferentzia eta legedia zehazten dituzte eta erabilitako lan-prozesua eta metodologia deskribatzen dute.

Halaber, Planaren oinarria Berdintasun Arloaren hausnarketa estrategikoa da, non Gorbeialdeko pertsonal politikoa zein teknikoa eta elkartearen mugimenduari emakumeek parte hartu duten, lau urteetan zehar ekintza gidatu behar duten erronkak, lehenetsiak eta jardun-printzipioak antolatzen laguntzeko.

Emakumeen autonomia eta askatasuna lortzen laguntzea Gorbeialdeko emakumeei ongizate ematen dion ikuspegitik, beren premiei erantzunez: garrarioa, haurzaindegi zerbitzua; eta jolas-ikuspegia emanez: mugimendu feministaren ekarpenak ezagutze eta aintzat hartzea, gure udalerrien ekarpenen garrantzia azpimarratzea. Halaber, kuadrillako ikuspegia eta udal arteko lankidetzatza aldarrikatzea genero ikuspegi estrategiko eta feminista batetik, zeinak Gorbeialdeko emakumeen ahizpatasuna sustatzen duen, udalerrien ezaugarrien beharrak ahaztu barik. Hauek guztiak zeharkako elementuak dira eta datozen urteetan zehar berdintasuna eraikitzeko proiektua iradokitzen dute.




Halaber, zeharkako elementutzat lehenetasun politikoetan eta administrazioaren egituretan zein prozeduretan genero ikuspegia txertatzea hartuko da, baita emakumeen bestelako egoera bereziak kontuan hartzea ere: genero desberdintasunak egoera hauek zeharkatzen ditu, beren diskriminazio esperientzia zehatza desberdintasunen batuketa ez den beste egoera ezberdin bihurtzen da.

Horretarako, Planak berme batzuk eratzten ditu, eta koordinaziorako zein lankidetzarako oinarritzko azpiegitura ezartzen ditu: “genero arkitektura” izenekoak; hauek barik, planteatutako helburuak ezin izango ziren bete. Hau guztia, Plan honetan proposatzen diren ardatzak, helburu estrategikoak eta neurriak eratzten diren oinarria da.

1. AURREKARIAK, ERREFERENTZIAK ETA LEGEDIA

1.1 AURREKARIAK



Gorbeialdeko Kuadrillako I. Berdintasun Plana aurreko esperientziaren lorpenetan eta aurrerapenetan oinarritu behar da.

2015ean Aramaio, Zigoitia eta Zuia Berdintasunerako plangintzari ekiteko Kuadrillako lehenengo udalerriak ziren, hiru Planen bitartez, hurrenez hurren. Plan horien iraunaldia aurten amaituko da. Geroago, 2016an Legutioko udalak I. Berdintasun Plana egin zuen. Lau Plan horien ebaluazioa gakoa izan da Plan hau idazteko.

Ebaluazioaren arabera, Gorbeialdean emakumeen eta gizonen Berdintasuna lortzeko lanari bultzada nabarmena eman zaio 2017tik aurrera. Urte horretan Berdintasun Unitatea jarraipen batekin ekion zion lanari: kuadrillako sei udalerrietarako Berdintasun Zerbitzua, zeinak Gorbeialdean zehar Berdintasunaren aldeko ekimenak abian jarritz.

Ekimen horietako bat "Gorbeialdeko Kuadrillako indarkeria matxistaren biktiman izan diren emakumeen arreta hobetzeko erakunde arteko I. Koordinazio Protokoloa" da. Dokumentu honen bidez, osasun arloan eta arlo sozialean zein polizialean jardun-prozedurak koordinatu daitezke indarkeria matxistari aurre egiteko tresna gako bihurtuz.

1.2 ERREFERENTZIAK ETA MARKO LEGALA

Plan hau eratzeko Aramaioko, Legutioko, Zigoitiko eta Zuiako aurreko Planen diagnostikoa eta ebaluazioa erreferentziatzat hartu dira, baita Urkabustaizen eta Arratzua-Ubarrundian egindako jarduerak ere. Halaber, Gorbeialdeko indarkeria matxistaren diagnostikoa eta horretatik eratorritako egungo Protokoloa kontuan hartu dira.

Horretaz gain, Arabako Foru Aldundiak Berdintasunerako neurriak kuadrilletan garatzeko laguntza eta sustapen sendoa eman ditu eta eskenatoki honetan daukagu prozesua.

Azkenik, egun Emakundek EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana 2018-2020 onetsi du, eta bere edukiak erabili dira Lehenengo

Plan honen egitura eraikitzeko, 4/2005 Legearen 15. artikulua 3. puntuak ezartzen duenez: *“Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat”*.

Legearen artikulua horri dagozkion eskuhartzeko lerroak honako hauek dira:



GOBERNU ONA
<ul style="list-style-type: none"> • PROG. I. PROG: Kompromiso politikoa. • PROG. II: Berdintasunerako trebakuntza. • PROG. III: Lan-prozeduretan genero ikuspegia. • PROG. IV: Koordinazioa eta lankidetzeta • PROG. V: Parte-hartzea eta ergaina.

I. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
<ul style="list-style-type: none"> • 1. PROGRAMA: Emakumeen ahalduzte pertsonalaren zein kolektiboaren aldeko laguntza. • 2. PROGRAMA: Emakumeen ahalduzte sozialaren eta politikoaren aldeko laguntza.

II. ARDATZA: EKONOMIAK ETA ANTOLAKETA SOZIALA ERALDATZEA ESKUBIDEAK BERMATZEKO
<ul style="list-style-type: none"> • 3. PROGRAMA: Berdintasuna eraldaketa sozialerako eta ekonomikorako beharrezko baloretzat hartzea. • 4. PROGRAMA: Emakumeen autonomia ekonomikoa. • 5. PROGRAMA: Zaintzen ekonomia feminista.

III. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK
<ul style="list-style-type: none"> • 6. PROGRAMA: Sentsibilizazioa eta prebentzioa. • 7. PROGRAMA: Detekzioa, arreta eta kaltearen erreparazioa. • PROGRAMA 8: Erakunde arteko koordinazioa.

1.3 LEGEDIA

Era berean, Gorbeialdeko Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasun Plana, Eusko Jaurlaritzak onetsitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, esparruan garatzen da. Lege honen I. Tituluak, I. Kapitularen 7. Artikuluan: "Konpetentziak eta Funtzioak" delakoan, Tokiko Administrazioari dagozkion funtzioak zehazten ditu:






Halaber, 4/2005 Legearen II. Tituluaren I. Atalaren 10. Artikuluan “Euskal herri administrazioen arteko erakunde antolaketa eta koordinazioa” dagokienez, Berdintasunerako tokiko erakundeen funtzioak zehazten da:




2. PLANA EGITEKO PROZESUA

Proiektuan erabilitako metodologia IEP izan da: Ikerketa – Ekintza – Parte-hartzea. IEPa ez da ikerkuntza bakarrik, ezta parte-hartze ikerkuntza, ezta ikerketa-ekintza ere; baizik eta Ikerkuntzaren, Ekintzaren eta Parte-hartzeko benetako presentzia zehatza eta interrelazioanala:



- Ikerketa hausnarketa prozesu sistematikoa, kontrolatua eta kritikoaren bidez egin da, errealitatea ikertzeko; kasu honetan, Gorbeialdeko politikak helburu zehatzekin. 4/2005 Legearen eta Berdintasun Planen betetzea alderatzea, Berdintasun Zerbitzua sortzearen aurreko egoera eta geroak, eta hurrengo lau urteetarako jardueraren plangintza.
- Ekintza ez da ikerketaren helburu bakarra, baizik eta ezagutza iturri bat, eta era berean, proiektua egitea bera eskuhartze bat da. Horregatik, ebaluazioaren emaitzak aldi berean, formazio-prozesua izan dira: Gorbeialdeko pertsonal politikoarekin zein teknikoarekin eta plangintza prozesuaren parte batekin. Irantzu Varelaren eta Josebe Iturrioren eskutik informazioa jasotzea bera (bi saiotan), Berdintasunean herritarren inplikazioa finkatzeko ekintzak izan dira.
- Parte-hartzeak esan nahi du ikerlari profesionalak ez ezik, proiektuaren komunitate hartzaileak ere inplikatuak direla, beren errealitatea ezagutzen eta eraldatzen laguntzen duen subjektu aktibo gisa. Beraz, Berdintasunari dagozkion beharrei buruzko aurretiko hausnarketaren arabera Plana diseinatu da: pertsonal teknikoarekin formazio-ekintza prozesuekin, planteamendu estrategikoetan pertsonal politikoaren inplikazioarekin – zeinak Planaren hasierako ideia aldatzen lagundu duen–, eta elkarteen mugimenduaren ekarpen zehatzekin, zeintzuek geroago islatuko diren lehentasunak definitzen lagundu dituzten. Hiru faktore hauen konbinazioa zehaztekoan, jarraitutako prozedurak hurrengo pausoak barne hartu ditu:





Zehazki, garatutako lan-prozesua honako hau izan da:

A. LEHENENGO HIRUHILEKOA

- Lanean hasi zen, Berdintasun Unitatearekin metodologia alderatu zen eta jarraipenerako oinarritzko txostenak eta materialak jaso ziren.
- Bigarren-mailako iturriak aztertu ziren. Kuadrillako egungo egoera-mapa egitekotan, Berdintasunerako garrantzia duten datu estatistikoak eta alderdi soziodemografikoekiko txosten kualitatiboak berrikusi ziren. Hauek aurki ditzakegu, bestak beste:
 - Euskal Estatistika Erakundea – EUSTATen datuak.
 - Lanbideren datuak.
 - Garapen Agentzien Euskal Elkarte – Garapenen datuak (Hiri-behatokia).
 - Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea – GOFEn datuak.
 - Gorbeialdeko Kuadrillako indarkeria matxistaren egoeraren diagnostikoa.
- Gainera, Berdintasun Teknikariarekin bi lan-saio egin ziren, bakoitza, hiru ordukoa; eta talde bat Teknikari Soziokulturekin, bi ordukoa, 2016ra arte, Berdintasunerako kudeaketarako zein koordinaziorako lanen arduradunak baitziren.
- Alderaketa honen ostean, 17 elkarrizketak egin ziren: Kuadrillako zein udaletako gainontzeko zerbitzuen teknikari arduradunekin, beren ezagutza eta balorazioak jasotzekotan. Elkarrizketatutako pertsonen profilak honako hauek dira:
 - Euskara Teknikaria.
 - Ingurumen Teknikaria.
 - Gizarte Langileak.
 - Integrazio sozialaren eta familien arduradunak.
 - Garapen ekonomikorako Teknikaria.
 - Turismo Teknikaria.
 - Kuadrillako Pertsonal Administratiboa.
 - Hiru udalerrietako Hirigintzarako politiken arduradunak.

Horretaz gain, elkarrizketaren bidez parte hartu ezin zutenentzat onlineko galdetegiak gehitu ziren.

egoeraren baloratzea.



B. BIGARREN HIRUHILEKOA


- Prozesu honen ostean, pertsonal teknikoarekin hiru orduko formazio-ekintza talde bate egin zen, non 10 pertsonak parte hartu zuten; eta Kuadrillako zenbait alkate eta berdintasun zinegotzi elkarrizketatu ziren, ordu bateko bileretan.
- Ekarpinak jaso ondoren, emakumeei eta elkarteen mugimenduari zuzendutako galdetegi bat diseinatu zen, non Gorbeialdeko 31 pertsonak parte hartu zuten.
- Informazio honekin guztiarekin Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasunerako Politiken Ebaluazio Txostena idatzi zen.
- Ebaluazioa behin eginda, laburpen dokumentua sortu zen eta Pertsonal Teknikoari bidali zitzaion.
- 6 ekarpen jaso ziren, hurrengo orrialdeetan barne hartutakoak.
- Era berean, Pertsonal politikoarekin eta alkateekin kontrastatu zen. Planteamendu estrategikoa aztertu zen eta ekarpen garrantzitsuak jaso ziren, zeintzuk dokumentu finalean islatu diren. Bileretara etorri ezin zirenekin telefonoz kontaktatu zen guztien iritzia entzutekotan.
- Beste aldetik, azaroaren bigarren hamabostaldian zehar, bi lan-jardunaldi egin ziren: Josebe Iturriozek eta Irantzu Varelak dinamizatuak, Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren antolatuak eta Red Kuorum S.L.-en aholkularitzarekin. Talde hauetara 28 pertsona bertaratu ziren.
- Aramaion bilera abenduaren 3an antolatu zen Berdintasun Batzordea informatzeko.

Honekin guztiarekin, dokumentu hau egin da, non 88 pertsonak parte hartu duten.

3. PRINTZIPIOAK ETA BERMEAK

3.1 PRINTZIPIOAK

Plan hau garapenean zehar ezarpen orokorrerako bost printzipiotan oinarrituta dago. Printzipiok ez dira asmoen aitortpena, baizik eta herritarren parte-hartzetatik sartuak dira: azaroaren 16an eta 28an egindako taldeetan sortutakoak, arbelean jaso diren ekarpenen argazkiak erakusten dutenez.





EMAKUMEEN ATUOTOMIA ETA ASKATASUNA ERAIKITZEA ZAINKETATIK PARTE-HARTZERA: GARRAIOA ETA HAURTZAINDEGIA

- Plan honen garapena ez da posible Gorbeialdeko emakumeen partaidetza barik. Baina, parte-hartze hau ere konplexua da: udalerrri txikiak dira, batetik bestera oso ezberdinak, non emakumeen talde handi bat ez da erraz batzen, eta ondorioz, isolamendu sententzia sortu daiteke. 2018ko azaroaren 16ko taldearen partaide batez esan zenez, “bakartia sentitzen zara eta ez dakit jarraitu ala ez, ezta nola egin ere”. Berdintasunean inplikatzeko oso prozesu konstruktiboa da, non era berean, frustrazioa ere sortzen den, aldaketa sozialak oso motel baitoaz edo inplikazio hain handia egitearen eratorritako nekeagatik. Beraz, Planaren helburuekiko koherentziak, prozesu berak, martxan jartzen duten emakumeei ongizatea ekarri behar die eta behintzat, garraioa eta haurtzaindegi zerbitzua erraztu behar dizkie. Landa-eremuak direla kontuan hartu behar dugu, non garraio publikoaren gabezia diskriminazio faktore nagusienetarikoa den, 2018ko azaroaren 28ko taldearen esanetan, askatasuna eta inguruko zerbitzuak erabiltzea mugatzen baitu. Emakumeek daukaten garraio publikoaren mendeotasunak beren denbora murrizten du, eta taldearen partaideen arabera, Gorbeialdean, loturak beren premiei ez dagozkie ezta eguneroko bizitzari ere. Beste aldetik, Kuadrillan erantzunkidetasuna oraindik lortu behar denez, haurtzaindegi eta ludoteka zerbitzuak ezinbestekoak da, OROKORREAN, eta bereziki, Berdintasunerako jarduerak antolatzeke orduan, beharrezkoak ez ezik, aintzatespen sinbolikoa zein praktikoa ere baitira: alderdi honetan lantzen jarraitu behar da.

AUTONOMIA ETA ASKATASUNA ERAIKITZEA JOLAS-IKUSPEGITIK

- Beste aldetik, parte-hartzea zaintzea, parte-hartzen duten emakumeak zaintzea, beren ongizatearen zein gogo-aldartearen arduratzea da. Partaidetza denbora eta esfortzua ematea denez, intelektualki eta emozionalki onuragarria izaten saiatu behar da. Horretarako, umoreak, jolas-ikuspegiak plangintzan oinarritzeko papera du. Patricia Sornosak, bakarrizketalari feministak dioenez: “Borroka feministan umorea oinarritzekoa da, emakumeek mendeetan zehar kontzientzia hartu eta pazientzia erraldoia izan ondoren, oraindik aldatzeko gauza asko aldatzekoak direla gainditzekotan”







INDARRAK BATERATzea: KUADRILLAKO IKUSPEGIA ETA AHIZPATASUNA

- Berriro ere, Gorbealdeko emakumeen ahotsak jaso ditugu, oinarritzko estrategia moduan, ahalduntzea eraikuntza pertsonal bat dela esaten dugunean; baina, batez ere, kolektiboa da eta indar bateratuak izan behar ditu. Dinamikak egitean, emakumei beren beharrei buruz galdegu genien, eta lehenengo eskaera elkareen mugimenduaren esfortzua zen: inguru txikietan ekimen feministak zabaltzeko laguntza.
- Testuinguru honetan, ahizpatasuna agertu eta azaldu zen, zeina Marcela Lagarderen arabera: “emakume ezberdinen arteko adiskidetasuna, zeintzuk elkarrekin lan egiten, sortzen eta konbentzitzen hasi diren, elkartzen diren, eta feminismoa ezagutzen duten, askatasun zentzu sakonarekin bizitza bizi izatekoa” den. Honek, lurralde, erkide edo estatu mailan sustatzen ahal den harremanaz aparte, lehenengo pausoa dakar: udalerrriak koordinatu behar dira. Horregatik, jarduteko printzipio bat da: udalerrien beharrei erantzun behar bazaie ere, kuadrillako ikuspegiatik ere lan egin behar da, desadostasunak gaingituz indarrak bateratzearen. Azken finean, kontuan hartu behar dugu udalerrriak ezberdinak badira ere, emakumeen beharrak berberak direla.

GENERO IKUSPEGIA TXERTATzea

- Generoaren zeharkakotasuna emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunaren printzipioa politika publiketan txertatzea da, baldintza berdintasunean balibabide guztietara sartzea bermatzeko; politika publikoak planifikatzeko genero arrakalak kontuan hartuz; eta benetako berdintasunerazko bidean aurrerapausoan hauek sortutako emaitzak zein inpartuak identifikatzeko eta ebaluatzeko.
- Honek barne hartzen du, gutxienez, bi aldaketa kudeaketa eremuan:
 - Lehenengoak prozeduraren aldaketa dakar: emakumeen eta gizonen desberdintasunak politiken erdigunean jarriz, bi sexuen beharrei zuzen erantzuteko.
 - Bigarrena administrazio publikoaren antolatze moduak eta egiturak berrikustera zuzenduta dago, desberdintasun sozialak mantentzen dituzten elementuak errotik kentzeko.



ZEHARKAKOTASUNA

- Zeharkakotasunak desberdintasun soziala sortu ahal duten emakumeen egoera partikularrak baloratzea eta aztertzea dakar, genero desberdintasunaren egiturazko izaera ahaztu barik. Hau estrukturala da eta diskriminazioa sortu ahal duten gainontzeko desberdintasunetan dago: adina, jatorrizko herrialdea, aukera sexuala, genero identitatea, aniztasun funtzionala, egoera administratiboa edo baliabide ekonomikoak, besteak beste.
- Baina emakume askok bizi dituzten egoera bereizten duena da elkartzen direnean, desberdintasunen batuketa ez dela, baizik eta aipatutako desberdintasunen artean intersekzioak sortzen dira era ezberdinean, egoera pertsonal edo talde sozial bakoitzean. Plan hau ezartzeko prozesuan egoer hauen arabera identifikatzen eta jarduten saiatuko da.



PARADIGMA FEMINISTA

- Emakumeek pairatzen ditugun diskriminazioak, zapalkuntzak eta indarkeriak sistema patriarkal eta androzentriko bati dagozkio, baita sustatzen duten egiturei ere. Desberdintasuna estrukturala da eta ez bakarrik politikoa edo legala.
- Horregatik, Bigarren Olatuaren aldarrikapen feminista benetako Berdintasuna da: desberdintasunaren egitura apurtzeko beharra eta emakumeek eskubideetara, boterera eta baliabideetara sartzea ez ezik, eskubide horiek erabili ahal izatea ere bermatzea.
- Izan ere, Plan hau Berdintasunaren kontzeptzio integral honetan kokatzen da, eta abian jartzeak barne hartzen du zeharkako hedatzea eta, emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioak nola eta zergatik ematen diren ulertzeko feminismoaren ekarpenak aintzatestea.



3.2 BERMEAK

Gainera, ulertzen dugu Plan honen betetzeak berme batzuk behar dituela. Hauek barik, Plana ezin izango zen ezarri:

BALIABIDE NAHIKOAK

- Erakunde publikoek bultzatutako edozein aldaketa sozialak giza baliabide eta baliabide material nahikoak behar ditu. Horretarako, oinarrizkoa da Gorbeialdeko udalerriek bi esfortzu egitea:
- Lehenik, Berdintasun Unitatea mantzentzea da, formalkuntza egokiarekiko giza balabiadeekin: 150 ordu eta Berdintasunaren inguruan eskarmentuarekin; jardunaldi osoan eta lanpostuaren ardurari dagozkion kontratazio baldintzekin: orduteagiari eta kontratazio mailari begira.
- Bigarrenik, aurrekontuari dagokiona da. aurrekontuak emakumeen beharren eta eskaeren erritmora areagotzen jarraitu behar da. Horretarako, bermatu behar da Aramaioko, Arratzua-Ubarrundiako, Legutioko, Urkabustaizko, Zigoitiko eta Zuiako udalerriek eta Gorbeialdeko Kuadrillak beren urteko aurrekontuak eratzean plan honen beharrak kontuan hartuko dituztela, eta beste erakunde batzuei diru- laguntzak eskatzearen alde lagunduko dute, administrazio lanak ginez.

KONPROMISO POLITIKOA ETA ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA

- Neurri publikoak garatzeko, ordezkari publikoen bultzada beharrezkoa da. Inplikazio eta konpromiso politikoa agerian geratuko da udalerrri bakoitzeko lan-agendaren lehentasunetan genero ikuspegia txertatzean: Aramaion, Arratzua-Ubarrundian, Legution, Urkabustaizen, Zigoitian eta Zuian. Konpromiso hau zabaltzen da erakunde arteko koordinazioaren beharrari erantzutearren, eta posible denean kudrillako ikuspegitik lan egin behar da: bai sinergiak sortzeko eta irizpideak bateratzeko, bai garatutako politiketan koherentzia sortzearren.

EMAKUMEEN EKARPENAK TXERTATZEA

- Emakumeen ahalduntzea Berdintasunerazko bidearen oinarrizko ardatzen bat denez, politika egokiak garatzeko, emakumeen iritziak bereziki kontuan hartu behar dira. Politika publikoak, orokorrean, eta Berdintasunerakoak, detektaturiko behar sozialak betetzekoak izan behar dira. Beraz, Plan honetan dauden bide guztien bidez jaso behar diren ekarpen guztiak entzunda, baloratuak, eta ahal den neurrian, integratuak izatea ezinbestekoa da, Gorbeialdeak ibiliko duen bidea eraikitzea bermatzekotan.

4. KOORDINAZIO AZPIEGITURAK: GENERO ARKITEKTURA

Administrazio publikoetan genero ikuspegia txertatze prozesuaren garapenean aurreratzeko eta Planaren neurriak ezartzeko, oinarrizko azpiegitura bat behar da, "genero arkitektura" izeneko, zeinak estrategia ezartzeko bideragarritasuna errazten eta eraginkor bihurtzen duen.

Genero arkitektura hau segimendu eta koordinazio formulek osatua dago, zeintzuek Berdintasunerako politikaren horizontaltasuna bermatzeko formularako aldaketa elementuak eratzen dituzten. Hauek, strategiaren garapena zein jarduerak egitea mantentzen duen eta politiketan berdintasuna txertatzea errazten duten egiturek, unitateek edo organoek osatuta daude.

Ezartzeko oinarrizko egiturak honako hauexek dira:





GORBEIALDEKO KUADRILLAKO BERDINTASUN UNITATEA

Osatzen dutenak honako hauek dira:

- **Berdintasun Zerbitzu Teknikoa:** diseinua, ezartzeko bultzada, garapena eta I. Berdintasun Planaren emaitzen ebaluatzeko erantzukizuna bere gain hartzen du. Berdintasunaren inguruko formakuntza zehatza daukan Berdintasun Agente bat (Eamkumeen eta Gizonen Berdintasunerako Masterra. UPV/EHU), %100eko dedikazioa.
- **Zuzendaritza:** Berdintasun Unitatearen zuzentzearen arduraduna Kuadrillaiko Presidentzia da.

KUADRILLAKO BULTZADA EGITURAK

- **Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Segimendu Batzorde Teknikoa:** Kuadrillako Arlo bakoitzeko maila teknikoaren orderkariak batzen du. Etorkizunean Aramaioko, Arratzua-Ubarrundiako, Legutioko, Urkabustaizko, Zigoitiko eta Zuiako udal pertsonal teknikoa ere integratu ahalko du.
- **Planaren Segimendu eta Koordinazio Batzorde Politiko:** Udalerrietako eta Kuadrillako Berdintasunerako Politiken pertsonal politiko arduraduna batzen du: Alkateak eta Kuadrillako Presidentzia.

PLANA EZARTZEKO GENERO ARKITEKTURA

LANKIDETZARAKO ETA PARTE-HARTZE SOZIALERAKO EGITURAK

- **Gorbeialdeko Berdintasun Foroa:** talde feministek, emamkumeen elkarteek eta Berdintasun Unitateak osatua. Politiken diseinuan parte hartuko du eta Berdintasunarekin erlazionatutako gaiak eta Gorbeialdeko emakumeen errealitatea aztertuko ditu.
- **Aramaioko eta Zigoitiko Foroak edo Berdintasun Udal Batzordeak:** Udalerrri bakoitzeko herritarrek eta pertsonal politikoak zein teknikoak osatua. Berdintasunerako tokiko politikak orientatzeko funtzioa dute.

ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIO EGITURAK

- **Protokoloaren Koodrinazio Taldearen Batzorde Teknikoa:** Zerbitzu sanitarioen, poliziaen eta Gizarte Zerbitzuen arteko lankidetzaren Indarkeriari aurre egiteko Protokoloa ezartzearen.
- **Arabako Kuadrillako Berdintasun teknikarien Sarea:** Espacio de trabajo colectivo entre las técnicas de igualdad de las Cuadrillas de Álava, impulsado por la Diputación Foral de Álava, que busca fortalecer su trabajo en los municipios y Cuadrillas y favorecer la reflexión y acción colectiva desde una visión territorial.
- **Berdinsarea:** EAEko Berdintasun Teknikarien koordinazio egitura. Sare honen xedea da tokiko administrazioek kudeatutako programak eta zerbitzuak sustatzea, sendotzea, koordinatzea eta ebaluatzea.

Jarraian, Gorbeialdeko Kuadrillari dagozkion osaera, funtzioak eta egituren funtzionamenduak deskribatzen dira:

4.1 BERDINTASUN UNITATEA

Osaera:

- Kuadrillako Presidentzia.
- Berdintasun Teknikaria.

Berdintasun unitatearen funtzioak:

- Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Unitateak beteko dituen funtzioak, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, definitzen direnak.
- Berdintasun Unitateak Aramaioko, Arratzua-Ubarrundiako, Legutioko, Urkabustaizeko, Zigoitiko eta Zuiako udalerriei aholkularitza teknikoa eskainiko die.
- Era berean, Berdintasun Teknikariak Foru Aldundiko koordinazio saioretan parte hartuko du, Arabako gainontzeko Berdintasun Teknikariarekin eta Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzarekin batera.

Funtzionamendua:

- Berdintasun Teknikaria aholkatzen dituen udalerrietatik igaroko da, udaletxeetako pertsonalekiko komunikazioa eta zuzeneko kontaktua errazteko. Udaletxe bakoitzerako denboraren banaketa, udalerriek eta Kuadrillak adostua izango da, baina jardunaldi bakoitza bakarrik lan-zentro batean izan behar dela kontuan hartuz.
- Behar den aldizkakotasunarekin, Berdintasun Teknikaria Kuadrillako Presidentziarekin bilduko da, bere kompetentziak garatzeko ildoak eta oniritziak jasotzeko.



4.2 GORBEIALDEKO KUADRILLAKO BULTZADA POLITIKORAKO ETA TEKNIKORAKO EGITURAK

PLANAREN KUDEAKETA, KOORZINAZIO ETA SEGIMENDUAREN BATZORDE TEKNIKOA

Osaera:

- Gorbeialdeko Kuadrillako pertsonal teknikoa.

Funtzioak:

- Plan honetan kontuan hartutako neurrien ezartzetik eratorritako segimendua egitea.
- Gobernu Onaren ardatzean eta 4/2005 Legearen betetzean barne hartutako neurrien ezarpena elkarlanean aritzea.
- Ekintzak ezartzea koordinatzea, zerbitzu ezberdinen arteko deialdiak argitaratzen saihestuz.
- Funtzioen, kompetentziak eta estrategiak elkar ezagutzea sendotzea, genero ikuspegia zeharka txertatzea.
- Funtzio hauen betetzea erratzeko Genero ikuspegitik eta Berdintasunaren inguruko formazioetara bertaratzea.

Funtzionamendua:

- Seihileko bilerak.
- Kuadrillako Berdintasun Plana betetzeko ohiz kanpoko bilerak.

PLANAREN SEGIMENDUAREN ETA KOORDINAZIOAREN BATZORDE POLITIKOA

Osaera:

- Kuadrillako presidentzia.
- Aramaioko, Arratzua-Ubarrundiako, Leguitoko, Urkabustaizko, Zigoitiko eta Zuiako Berdintasunerako Politiken alkate edo zinegotzi arduradunak.

Funtzioak:

- Berdintasunerako Politikaren lerro estrategiko komunak definitzea.
- Urteko lanerako programazioa onestea.
- Baliabide ekonomikoen eta giza baliabideen hornidura onestea.
- Urteko segimenduaren emaitzak onestea.
- Udalerri arteko indar-ekintza komunak adostea.
- 4/2005 Legearen betetzea bermatzea.

Funtzionamendua:

- Urteko bilera.
- Gorbeialdeko Berdintasun Planaren betzetetik eratorritako ohiz kanpoko bilerak.



4.3 LANKIDETZA ETA PARTE-HARTZE SOZIALETARAKO EGITURAK

GORBEIALDEKO BERDINTASUN FOROA

Osaera:

- Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun foroa 2017ko urriaren 23an sortu zen eta emakume zein gizon feministek osatua dago, baita Kuadrillako elkarteen orderkariak ere.

Funtzioak:

- Foroa herritarrei irekita dago Berdintasunerako politikak, planak eta programak elkarrekin bultzeko, zaintzeko eta Berdintasunaren inguruko sentsibilizazio kanpainak sortzeko. Foroa Gorbeialdeko emakumeen ahalduntzerako tresnatzat jotzen saiatzen da.

Funtzionamendua:

- 2018ko apirileko bileran ezarritakoaren arabera:
 - **Ibiltaria:** Bilerak eta deialdiak Gorbeialdeko udalerrietatik izango dira.
 - **Dinamiko eta dibertigarria:** umorez, garagardoekin, tupper warerekin, afariekin... Foroaren helburu nagusia izango da osatzen duten pertsonen ongizatea ekartzea. Horregatik, topaketak diseinatu ziren helburu hau betetzeko.
 - **Zuzena:** batez ere, wasap talde baten bitartez komunikatzen da, abisatzeko, deialdiak egiteko, informazioa bideratzeko eta pertsona berriak barne-hartzeko.
 - **Operatiboa:** lan-taldeak edo palnteatzen diren gaien araberako batzordeak sortuko dira eta ahalik eta eraginkorrenak izaten saiatuko da.
 - **Autoebaluatua:** bere funtzionamenduari buruz aldizka hausnartuko du.
 - **Independientea:** Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren independienteki funtzionatu ahaliko du.
 - **Aldizkakotasuna aldagarria:** urteko herritarren kanpaina Kuadrillako Berdintasun Topaketa aprobetxatuko du.



ARAMAIOKO ETA ZIGOITIKO BERDINTASUN TALDEAK

Osaera:

- Aramaioko eta Zigoitikio herritarrak, hurrenez hurren.

Funtzioak:

- Berdintasunerako politiketan udalerrri bakoitzeko eta Kuadrillako jardueraren plangintzan, diseinuan eta ezarpenean elkarlanean aritzea.
- Aramaioko eta Zigoitiko elkarteen Berdintasunaren inguruko jarduketa koordinatzea, hurrenez hurren.
- Taldeetan zehazten direnak, kideen adostasunaz.

Funtzionamendua:

- Aramaioko Berdintasun taldea bere kabuz biltzen da.
- Zigoitiko Berdintasun taldea Udalaren deialdien arabera biltzen da.



4.4 ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIO EGITURAK

PROTOKOLOAREN KOORDINAZIORAKO TALDEAREN BATZORDE TEKNIKOA

Osaera:

- Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Teknikaria.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Pertsonal Teknikoa: A guneko eta B guneko Gizarte Langileak .
- Ertzaintza:
 - Vitoria-Gasteizko Ertzaintxeko ordezkariak.
 - Debauloko Ertzaintxeko ordezkariak.
- Osakidetza:
 - Arabako ESI – Erakunde Sanitario Integratuko sorospen programen arduraduna.
 - Lehen Mailako Arretako Unitateen Nagusiak.

Funtzioak:

- Berdintasun Zerbitzuak aurkeztutako jarduketaren induguruko datu orokorrak aztertzea urtero.
- Azterketa horren eratorritako proposamenak egitea, eta beharrezkoak diren baliabideak zein prozedurak hobetzeko erakunde egokietara eramatea.
- Erakunde sinatzaileak egindako biktimak artatzearen inguruko urteko lanaren memoria egitea eta garrantzitsutzat jotzen diren ondorioak eta balorazioak erakunde egokietara eramatea. Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak memoria hau egingo du.
- Erakunde arteko koordinazaioren jartotasuna bermatzea.
- Protokolo honetan ez dauden eta berehalako erantzuna behar duten alderdi operatiboak konpontzea.
- Protokoloa abian jartzearen eratorritako edozein gertakizunari erantzutea.

Funtzionamendua:

- Koordinazio Taldea ohiko bilerera urtero bilduko da protokoloa abian jartzetik, aldikakotasun hau areagotu daiteke aurreko urteko boalorazioan detekturiko beharren arabera.
- Taldea ohiz kanpoko bilerara bilduko da, behar denean.
- Berdintasun teknikariak bileretara idatziz deituko du, gutxienez, 15 egun baino lehenago. Bilerak dinamizatuko eta aktak hartuko ditu.
- Taldearen edozein kideak premiazko ohiz kanpoko bileretara egun bat baino lehenago deitu ahal ditu.

Gainontzeko erakunde arteko koordinazio egituren osaera, funtzioak eta funtzionamendua ez dago Gorbeialdeko Kuadrillaren menpe; beraz, horiek bultzatzen diren erakundeek araudiaren arabera eratu beharko dituzte.

5. I. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA

Gorbeialdeko Kuadrillako I. Berdintasun Planek barne hartutako helburuek erronkak eratzten dituzte: administrazioaren antolaketa edo barruko funtzionamendua aldatzekoak. Erronka hauek sozialak dira, emakumeen ahalduzko pertsonala zein kolektiboa, baliabideen eta zainketen banaketa simetrikoa eta indarkeriarik gabeko bizitzak lortzea sustatzeko.

Batek eta besteek I. Plana antolatzen den bi atal handiak eratzten dituzte: lehenik, gobernu onaren alde laguntzeko neurriak dira, administrazioan genero ikuspegia txertatuz; bigarrenik, Berdintasunaren inguruan eskuhartzeko ardatzak dira.



GOBERNU ONA:

5 programa eta 13 helburu dira, zeintzuek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen agindua jasotzen eta areagotzen dituzten: erakunde berrantolaketa edo euskal botere publikoen funtzionamenduan Berdintasun printzipioa txertatzekoak.

BERDINTASUNAREN INGURUAN ESKUHARTZEKO ARDATZAK:

- Gorbeialdeko Kuadrillako I. Planak proposatutako aldaketa sozialaren erronkak, Berdintasun kontuetan eskuhartze publikoa orientatzen duten 3 ardatzaren inguruan antolatzen dira: emakumeen ahalduzko sustatzeko, I. ardatzean; Baliabide eta zainketak banatzea, bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jartzeko, II. ardatzean; eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzeko lantzeko.
- Ardatz bakoitzak programa batzuetan datza, eta beren garapenerako helburu estrategikoak, neurriak eta ekintza zehatzak eratzten dira.
- Helburu estrategikoak eta neurriak bete behar diren bitartean, ekintzak gertagarriak dira: egungo baldintzei erantzuten direnak jasotzen dira, baina alda daitezke egoera berrietara eraginkortasun handiagorekin egokitzearen.
- Dokumentua amaitzean, neurri bakoitzerako erakunde arduradunak, kronograma, dagozkien TBerdin ebaluazio sistemaren segimenduaren fitxak eta aurrekontua.

Bai programak, bai helburu estrategikoak, 4/2005 Legeak eratzten duenez, EAeko VII. Planean iradokiak dira, eta arau horrek baimentzen duenez, aldaketa batzuekin, diagnostikoaren eratorritako beharrei eta Gorbeialdeko beharren ebaluazioari egokitzeko, eta estrategia hobeto agerian jartzeko.



6. GOBERNU ONA

A. ZER DA “GORBENU ONA”?

Gobernu onaren kontzeptua emakumeen eta gizonen arteko benetako Berdintasuna lortzeari zuzendutako politika publikoak diseinatzea eta garatzea bermatzen duten baldintzak sortzeko tresnari dagokio, eta Gorbeialdeko Kuadrillako justizia soziala eta giza eskubideak betetzea bermatzeko baldintza ezinbestekoa da.

Honek genero ikuspegia barne hartzea eskatzen du, baita lanerako praktikak zein prozedurak egokitzea, erabakiak hartzeko egiturak eta Kuadrillako erakundeen balioak bermatzea ere.

Horretarako, ezinbesteko bi estrategiak eratu dira: genero *mainstreaminga*, gobernu ona eta herritarren parte-hartzea.

- Lehenetsun politikoetan genero ikuspegia txertatzeko, funtsezko estrategia genero *mainstreaminga* da, zeinak genero arrakalak kontuan hartuz politika publikoak planifikatzea eta benetako Berdintasunari dagozkion politika publikoek egindako emaitzak zein inpaktuak identifikatzea eta ebaluatzea dakartzan. Horrela, baliabide guztietara baldintza-berdintasunean sartzea bermatuko da.
- Lanerako egiturak eta prozedurak egokitzeko eraten den estrategia gobernu ona da, hots, erakunde publikoen, merkatuaren eta gobernu kanpoko erakundeen interakzio eta lankidetzaren sustatzeko gobernatzeko era bat da, bai erabakiak hartzean, bai Plana ezartzean. Horretarako, herritarren parte-hartzea tresna nagusia da, demokrazia ordezkagarriaren osagarritzat, komunitate demokratikoago bat eraikitzeko. Horregatik, Plan honen betetzeko bermeen bat emakumeen ekarpenak txertatzea da.

B. GORBEIALDEKO KUADRILLAN IBILITAKO ETA IBILTZEKO BIDEA GOBERNU ONARI DAGOKIONEZ.

Marko honetatik, Gobernu Onaren alde laguntzeko, Gorbeialdeko Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasun Planak neurri batzuk eratzeko dituen programetan antolatuta, zeintzuek 4/2005 Legearen aginduei eta neurrietan zein programetan jasotako konpromisoei erantzuten dien, eta gizarte zuzenagorantz zein berdinaragorantz aurreratzeko udalerrien eta Kuadrillaren paper estrategikoa agerian jartzen duen. Honekin, kudeaketa gardena bermatzen da, herritarrek, eta bereziki emakumeek parte hartzeko mekanismoak prestatzen dira. Bere diseinua hasierako egoeraren diagnostikoan oinarritua da.

Denboraldi honetan lorpenik nabarmenena Teknikari bat izatea da: formakuntza zehatzekin eta jardunaldi osoan, Berdintasunerako politiken arduraduna, 2016tik aurrera.

Aurreko aldiak neurriak ezarri zituzten pertsonak –Teknikari Soziokulturalek– oinarria eratu zuten, Berdintasunerako Politikak garatzeko, bai barruko mailan, bai kanpoko mailan. Ezagutza zehatzaren gabeziak eta denbora zein baliabide ezak aurrerapauso esanguratsuak lortzen saihestu zuten.

Aitzitik, urte bakar batean 4/2005 Legearen betetzeak ekarri duen bilakaera oso nabarmena izan da, Berdintasun Unitatea sortu baita. Giza baliabideak ez ezik, baliabide materialak lortzea zein kudeaketa ere areagotu dira, sei udalerrietan Berdintasunerako aurrekontuen igoeragatik eta Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzetik diru-sail handiagoak lortzeagatik.

Era berean, Berdintasun Unitatearen dedikazioaren areagotu da, eta ondorioz, urteko plangintza operatiboaren sistematizazioa erraztu du pertsonal politikoaren eta elkarten kideen partaidetzarekin. Horretarako, koordinazio egitura egonkorrak sortu eta urteko segimenduaren zein ebaluazioaren memoriak egiten dira.

4/2005 Legearen 18. Artikulua 4. puntuaren betetzeari dagokionez, udal webguneetan zein aldizkarietan egiten den hizkuntzaren zein irudien erabilera ez sexistaren sistematizazio hobea egiaztatu da. Halaber, Pertsonal Teknikoak gai honi buruz gehiago jakiteko gogoia dauka. Hau guztia Berdintasunerako neurrien hedatzea eta gehiago komunikatzearekin batera eman da: emakumeen elkarten mugimendurekin sortutako wasap talde baten bidez, Berdintasun Teknikariak telefonoz egindako deiez, eta liburuxkak zein kartelak egiten eta zabalduz, bereziki, Arabako Jabekuntza Eskolako, LAIA eskolako jardueren bitartez.

Halaber, 4/2005 Legearen 17. Artikulua betetzea sendotu da, Pertsonal Politikoarentzako zein Teknikoarentzako formazio ikastaroak zein tailer ezberdinak egitearekin: Mainstreamingari, indarkeria sexistari eta hizkuntzaren erabilera ez sexistari buruzkoak. Gainera, Diru-laguntzetan eta kontratazioetan Berdintasunerako klausulak txertatzen hasi da: bederatzi kasutan, non batzuek oso ondorio onuragarriak izan dituzten; adibidez, Zigoitiko gaztelekua.

Hala eta guztiz ere, bakarrik kulturen eta kirolean genero ikuspegia eskuarki integratzen da, plangintza estrategikorik ez badago ere.

Erronken artean, lan-helburu honetan guztietan finkatzea eta sakontzea aurki ditzakegu, baita xede zehatz batzuei ekitea ere: sexuaren arabera bereizitako datuen jasotzearen, ustiapenaren eta hedatzearen sistematizazioa (zenbait arlotan jasotzen dira, baina ez dira jarduketara plangintzarako erabiltzen); aurrekontuak aztertzea genero ikuspegitik eta udal araudian genero ikuspegia txertatzeari ekitea, genero inpaktuaren ebaluaketan edo udal ordenantzen bidez.



Diagnostiko honetatik, proposatutako programak eta helburuak honako hauexek dira:

1. BULTZADA POLITIKOA	2. EZAGUTZAREN KUDEAKETA	3. GENERO IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN	4. KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA	5. PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA
<ul style="list-style-type: none">• 1.1. Berdintasunerako plangintza areagotzea zein hobetzea, eta ebaluazioa.• 1.2. Berdintasunerako politikak garatzeko aurrekontuak areagotzea.• 1.3. Berdintasunerako araudia garatzea.	<ul style="list-style-type: none">• 2.1. Pertsonal politikoa eta teknikoa Berdintasunaren inguruko formakuntza ekaintzea.• 2.2. Barruko eta kanpoko komunikazioan Berdintasuna txertatzea.	<ul style="list-style-type: none">• 3.1. Sexuaren araberako datuak jasotzea, ustiatzea eta erbiltzea.• 3.2. Genero inpaktuaren ebaluazio esperientzia pilotuak egitea.• 3.3. Kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan Berdintasunerako klausulak barne hartzea.• 3.4. Plan sektorialetan eta zeharkako planetan genero ikuspuntua txertatzea.	<ul style="list-style-type: none">• 4.1. Arabako Foru Aldundiko koordinazio prozesuetan parte hartzea.• 4.2. Emakundek eta EUDELek antolatutako koordinaziorako eta lankidetzarako prozesuetan parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none">• 5.1. Epaimahaietan emakumeen eta gizonen kopuru orekatua sustatzea.• 5.2. Parte-hartzeko eta kontsultarako organoetan genero ikuspegia txertatzea.

Helburu hauek betetzeko proposatutako neurri zehatzak –KOLOREZ– eta ekintzak honako hauexek dira:

1. PROGRAMA: BULTZADA POLITIKOA

1.1. HELBURUA: Berdintasunerako plangintza areagotzea zein hobetzea, eta ebaluazioa.

- 1.1.1 Urteko segimendu tresnak ezartzea: txostenak eta bilerak egitea pertsonal politikoarekin zein teknikoarekin, elkarrean mugimenduetarekin eta agente sozialekin.
- Plangintza bilerak urtero egitea Berdintasun Unitatearekin, seiudalerrietako alkateekin, Batzorde Politikoarekin, Batzorde Teknikoarekin eta Gorbeialdeko Berdintasun Foroarekin.
- 1.1.2 Planaren iraunaldiaren amaieran plana osatzeko urteko plan operatiboak egitea.
 - Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrean Urteko Plan Operatiboa urtero onestea eta Batzorde Politikora zein Batzorde Teknikora eta Berdintasun Forora bidaltzea.
 - Bi Batzordeekin eta Foroarekin egindako bileretan adostutako akordioak jasotzen diren Urteko Plan Operatiboa urtero egitea.
- 1.1.3 Emaitzak eta lorpenak agerian jartzen dituzten urteko segimendu memoriak egitea.
 - Segimenduaren Memoria urtero onestea Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrean, eta Batzorde Politikora, Batzorde Teknikora eta Berdintasun Forora bidaltzea beren onespena emateko.
 - Urteko Segimenduaren Memoria bat egitea, TBerdin segimendu eta ebaluazio tresnari dagokionez.

1.2. HELBURUA: Berdintasunerako politikak garatzeko aurrekontuak areagotzea.

- 1.2.1 Urteko plangintza operatiboa egiteko beharrezko aurrekontuak onestea.
 - Sei udalerrietako alkateekin urteko bileretan, urteko Plan Operatiboaren beharrei dagokien aurrekontua adostea.
- 1.2.2 Berdintasunerako politikak finantzatzeko diru-laguntzak eskatzea.
 - Plan honen ekintzen finantzatzaileak izan daitezkeen erakundeetara diru-laguntzen eskaera bat urtero aurkeztea.
 - Urtero Berdintasunaren inguruko diru-laguntzaren deialdiei buruz Gorbeialdeko elkarteei informazioa ematea eta gogoraraztea.

1.3. HELBURUA: Berdintasunerako araudia garatzea.

- 1.3.1 Berdintasunerako ordenantza bat egitea Kuadrillak hautatutako udalerrri pilotu batean..
 - Berdintasunerako ordenantza bat egitea, proba pilotu moduan, Batzorde Politikoak hautatutako Gorbeialdeko udalerrri batean.
 - Ordenantza behin eginda, Hedatzeko Jardunaldi bat antolatzea, gainontzeko udalerriekin esperientzia partekatze eta zabaltzeko aukera baloratzekotan.



2. PROGRAMA: EZAGUTZAREN KUDEAKETA

2.1 HELBURUA: Pertsonal politikoari eta teknikoari Berdintasunaren inguruko formazioa eskaintzea.

- 2.1.1 Udaleko pertsonal politikoaren eta teknikoaren behar formatiboen plangintza egitea AFArekin koordinazioan.
- Gorbeialdeko sei udalerrietako Batzorde Politikorako, Batzorde Teknikorako eta gainontzeko pertsonal teknikorentzat, partaideek adostatutako urteko formakuntza plana egitea.
- Urtero, definitutako ikastaroak antolatzea, AFArekin eta Plana ezartzeko baliabideak ekarri ditzaketen bestelako erakundeeekin Formakuntza Planaren ezarpena koordinatuz: Emakunderen *Nahiko*, *Gizonduz* eta *Jabetuz* programak, eta *Virginia Woolf Basqueskola* formazio programa.

2.2 HELBURUA: Barruko zein kanpoko komunikazioan Berdintasuna sartzea.

- 2.2.1 Udaletako eta Gorbeialdeko Kuadrillako komunikazioan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitea.
 - Webguneen eta Kuadrillako komunikazioaren arduradunei gidalerro bat bidaltzea, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitekotan eta, zalantzaren bat izanez gero, Berdintasun Unitatearekin kontsulta egitekotan.
 - Pertsonal politikoari eta teknikoari aholkularitza ematea, eskatzen dutenean.
 - Udalen, Kuadrillaren eta Gorbeialdeko Aldizkariaren webguneak berrikustea, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista bermatzeako.
- 2.2.2 Urtean zehar egiten diren Berdintasunaren inguruko ekintzak komunikatzea.
 - Plan honen ezartzearekin lotutako ekintzak hedatzea Udaletako zein Kuadrillako webguneetan, wasapen zein mailen bidez eta sare sozialetan.
 - Berdintasunaren inguruko berriak argitaratzea Gorbeialdeko Aldizkarian eta Gorbeialdeko komunikabideetan.

3. PROGRAMA: GENERO IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN

3.1 HELBURUA: Sexuen arabera bereizitako datuak jasotzea eta erabiltzea.

- 3.1.1 Gorbeialdeko Kuadrillako eta udalerrietako pertsonal teknikoari sexuaren arabera bereizitako datuak jasotzeko tresnak garatzeko aholkularitza eta laguntza ematea.
- Gorbeialdeko Kuadrillako eta udalerrietako pertsonal teknikoarekin bilera bat egitea jasotzen diren datuak berrikusteko eta datuak nola bereiztu ikusteko.
- Jasotzen diren datuen zerrendarekin eta datuak sexuaren arabera bereizteko eta erabiltzeko gomendioei buruzko txosten bat egitea eta udalerrietako alkateei zein Gorbeialdeko Kuadrillako Presidenteari bidaltzea.
- 3.1.2 Lau urtetan behin, Berdintasun Planaren ebaluazioarekin batera, sexuaren arabera bereizitako datuen erabilera eta ustiapena egitea, Kuadrillan Berdintasunerako Politiken ezartze-graduaren bilakaera aztertze.
- Bereizitako datuen memoria egitea eta Kuadrillako datuen bereizketaren betetzea ebaluatzea.

3.2 HELBURUA: Genero inpaktuaren ebaluazioaren esperientzia pilotu bat egitea.

- 3.2.1 Pertsonal teknikoari tresnaren erabiltzearen inguruko formazioa eskaintzea proiektu pilotuak garatzen diren heinean.
- Gorbeialdeko Kuadrillako zein Udalerrietako pertsonal teknikoari Genero Inpaktuaren Ebaluazioak egiteko metodologiaren inguruan formazioa eskaintzea, formazio-ekintza esperientzien bidez. Gorbeialdeko Kuadrillako adibide praktikoa bat erabiltzea formazio-ekintza hori egiteko.

3.3 HELBURUA: Kontratuetan eta diru-laguntzetan berdintasunerako klausulak barne hartzea.

- 3.3.1 Gorbeialdeko udalerrietako eta Kuadrillako Berdintasunerako klausulak barne hartzen duten diru-laguntzen eta kontratazioen deialdien kopurua areagotzea.
- Kontratazio deialdiak urtero definitzea genero ikuspegitik aztertze eta azterketaren eratorritako neurriak txertatzekoan.
- Udalerrietako eta Kuadrillako diru-laguntzen deialdien zerrenda bat egitea, Berdintasun klausulak dituztenak eta zein klausula mota txertatzen duten zehaztuz.
- Gorbeialdeko Kuadrillako Udaleetan Legutioko esperientzia hedatzea Diru-laguntzen Plan Estrategikoan genero ikuspegia sartzean, eta jardun bide on hau ezartzea ahal denean.

3.4. HELBURUA: Plan sektorialetan eta zeharkako planetan genero ikuspegia txertatzea.

- 3.4.1 Gorbeialdeko udalerrietan eta Kuadrillan ezartzen diren zeharkako planen eta plan sektorialen diseinuan pertsonal politikoari zein teknikoari aholkularitza ematea.
- Batzorde Teknikoaren bileretan, Pertsonal Tekniko bakoitzaren zein diren oinarritzko planak gai nagusitzat tratatzea –Agenda Lokal 21, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, Landa Garapenerako Plana, Turismo Plana...-. Plan sektorialak aldatzeko orduan, ezarpenean parte hartuko dute, genero ikuspegiak zeharkatzeko eta ezarritako ekintza sektorialen segimenduaren aldeko laguntza ematea. Genero Inpaktuaren Aurretiko Ebaluazioaren metodologiari buruzko informazio-formazio ekintza bat egitea, Plan Sektorialen edo zenbait urtetarako zeharkako planen diseinuari ekin zaionean, eta ezartzeko aholkularitza eskaintzea



4. PROGRAMA: KOORDINAZIO ETA LANKIDETZA

4.1 HELBURUA: Arabako Foru Aldundiko koordinazio prozesuetan parte hartzea.

- 4.1.1. Berdinbidean programaren urteko bileretan parte hartzea eta bertaratzea.
 - Berdinbidean Zerbitzutik AFAk deitutako bileretara joatea eta han adostutako akordioen eratorritako koordinazio lanak egitea.
- 4.1.2. LAIAeskola programaren urteko bileretan parte-hartzea eta bertaratzea.
 - LAIAeskolaren Idazkaritza Teknikotik AFAk deitutako bileretara joatea eta han adostutako akordioen eratorritako koordinazio lanak egitea.
- 4.1.3. AFAk planteatutako Kuadrilletako koordinazio prozesuetan parte hartzea.
 - Kuadrillako Berdintasunerako Politiken koordinaziorako AFAk deitutako bileretara joatea eta han adostutako akordioen eratorritako koordinazio lanak egitea.

4.2 HELBURUA: Emakundek eta EUDELeK antolatutako koordinazio eta lankidetzan parte hartzea.

- 4.2.1. Berdinsarea programan urteko bileretan parte hartzea eta bertaratzea.
 - Berdinsarea Zerbitzuak deitutako bileretara joatea eta han adostutako akordioen eratorritako koordinazio lanak egitea.
- 4.2.2. Beldur Barik Programaren urteko bileretan parte hartzea eta bertaratzea.
 - Beldur Barik programak deitutako bileretara bertaratzea eta han adostutako akordioen eratorritako koordinazio lanak egitea.

5. PROGRAMA: PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA

5.1. HELBURUA: Epaimahaietan emakumeen eta gizonen kopuru orekatua sustatzea.

- 5.1.1. Pertsonal politikoari eta teknikoari epaimahaietako osaerarako irizpideen inguruko aholkularitza ematea.
 - Epaimahaien arduradun pertsonal politikoarekin edo teknikoarekin osaera parekidea errazten duten irizpideak barne hartzekotan.

5.2. HELBURUA: Parte-hartzeko eta kontsultarako organoetan genero ikuspegia txertatzea.

- 5.2.1. Pertsonal politikoari zein teknikoari organoen, parte-hartzeko zein kontsultarako prozesuen inguruko aholkularitza ematea, genero ikuspuntua txerta dezaten.
- Organoen, parte-hartzeko zein kontsultarako prozesuen diseinuaren, osaeraren eta dinamizazioaren arduradun pertsonal politikoarekin zein teknikoarekin bilerak egitea, osaera parekidea errazten duten irizpideak barne hartzekotan.



7. ESKUHARTZE ARDATZAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNEAN

I. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

A. ZER DA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA?

Ahalduntzearen definizio ezberdinak daude. Testu honetan, eta EAEko Emakumeen eta Gizonen VII. Berdintasun Planean ezarritako lan-ildoei zein Marcela Lagarde y de los Ríos antropologoari jarraituz, prozesu hau jotzen da ahalduntzetat: *“emakume bakoitzak besteentzat aritzeari uzten dio, besteen objektu izateari, historiaren objektu izateari, politikaren eta kulturaren objektu izateari, eta bere bizitzaren subjektu bihurtzen da, bere buruarentzat arituko delarik, historiaren, kulturaren, politikaren eta bizitza sozialaren protagonista izanda”*.

Arlo soziopolitikoan protagonismo horri heltzeko, pertsonalki zein kolektiboki kontzientzia hartzeko prozesu bat behar da. Pertsonalki, gure gizartean dauden desberdintasunen kontzientzia hartze prozesu pertsonal bat behar baita, sistema patriarkala eta androzentriko esparruan, autonomia, autoestimua eta autozainketa finkatzeko eta eragiteko zein erabakitze gaitasuna erabili ahal izateko helburuarekin; kolektiboki, emakumeen interesak erlazionatzen diren prozesu bat ere beharrezkoa baita, baliabide materialetara zein sinbolikoetara sartzean, erabiltzean eta kontrolean beren boterea areagotzekotan, baita erabakiak hartzean zein aldaketa sozialean parte hartzeko, sendoagoa den posizio kolektibo batetik.

Beraz, estrategia bat da zabalagoa den prozesu hori lortzeko, non emakumeak bizitza sozialaren protagonista bihurtzen diren; eta kontuan hartu behar da aktibismo horrek jarduketara politikoa ere dakarrela.

Ikuspegi horretatik, Gorbeialdeko Kuadrillako I. Berdintasun Plana emakumeek berek euren buruak ahaldundu ditzaten laguntzera bideratuta dago: ahalduntze pertsonalaren, ahalduntze kolektiboaren eta haien ahalduntze politikoaren bidez.

B. GORBEIALDEKO KUADRILLAN IBILITAKO ETA IBILTZEKO BIDEA EMAKUMEEN AHALDUNTZEARI DAGOKIONEZ.

Emakumeen ahalduntze arloan, giltzarririk nabarienak dira Arabako Jabekuntza Eskola LAIAeskola abian jartzea Kuadrillan; eta Gorbeialdeko Berdintasun Foroa sortzea. Jabekuntza eskolak emakumeen autonomia, desberdintasunen kontzientzia hartzea eta berdintasunaren alde lan egin behar dela barneratzea sustatzen duen formazio espazio bat antolatzea utzi du. Plan hau eratzeko herritarrei aurretik egindako galdeketa Berdintasunean lan egiteko beharraren gehien balorazioa, bostetik hirukoa zenez, sentsibilizazio prozesu hau garrantzitsua dela argi geratu da.

Baina haratago, Gorbeialdeko emakumeen sareak eratzeko eta sendotzeko topaketa esparrua ere bada: arlo pertsonaletik arlo kolektibora. Zentzu honetan, Zigoitiko Jardunaldi Feministak jardunbide on bat da.

Ospatzeko ekintzen jarraipena herritarren sentsibilizazio esparruak sortu ditu, eta azpimarratzekoa da emakumeen eta gizonen parte hartzea oso altua izan dela, martxoak 8a eta ekainaren 28a ospatzeko ekintzetan inplikatu dira. Egoera honetan oso garrantzitsua da Kuadrillako Berdintasun Topaketen ekarpena, zeintzuk Gorbeialdeko Foroak oso ondo baloratuta dauden.

Gorbeialdeko Kuadrillako Foroa lorpen fisiko a eta sinbolikoa da, lan egiteko esparru bat eratzen baitu, non elkarte ezberdinek eta pertsonak Berdintasunerako lana planifikatzeko eta koordinatzeko lan elkarlanean aritzen diren. Sinbolikoa da Kuadrillako emakumeen elkarten mugimenduaren batasunerantz aurrerapauso bat delako.

Gainera, emakume politikarien ahalduntzean zein sentsibilizazioan aurreratu dela gehitu behar dugu, Virginia Woolf Basqueskolan Gorbeialdearen partaidetzaren bidez, non urtero jarduerak egiten dira.

Ardatz honen erronken artean, Gorbeialdeko herritarrek batzuk aipatu dituzte. Autozainketari dagokionez, partaideek sistema sanitarioaren gabeziak azpimarratu dituzte orokorrean, eta zehazki, Gorbeialdean, emakumeen osasunaren autozainketa egokiaren aldeko laguntza emateari begira. Esaterako, arreta ginekologikoaren zerbitzurik eza seinalatu dute, baina haratago, zerbitzuen genero ikuspegitik berrikustea eskatzen dute. Halaber, genero desberdintasunen kontzientzia hartzen duten eta euren burua feministatzat hartzen duten emakumeen kopurua areagotu behar dela diote.

Ahalduntze pertsonaletik kolektibora igarotzeko dagokionez, desberdintasunaren kontzientzia hartu duten emakumeen masa kritikoa falta dela eta horren ondorioz, indarrak eta laguntza bateratzeko lan egin behar dira: jolas-ikuspegitik, dibertigarria zein dinamikoa den ikuspegitik.

Era berean, sortu berria den Gorbeialdeko Foroak ere esfortzuak bateratzea lortzea bere erronken bat dela uste du, eta horretarako, baliabideak, egun seinalatuak ospatzea, Zigoitiko Jardunaldi Feministak eta Kuadrillako topaketa erabiltzen ditu.



Herritarrek aipatutako beste erronka batzuk dira emakumeek Jabekuntza Eskola finkatzea eta bereganatzea, eta kultura arloan genero ikuspegia integratzea, eta bereziki kirol arloan, emakumeek praktikatzen duten kirola gizonen kirola baino laguntza gutxiago jasotzen baitu.

Hau guztia hiru programen bidez antolatzen da:

- Lehenengoa **ahalduntze pertsonalaren aldeko laguntzari** dagokio. Programa honekin emakumeen autonomiaren, autoestimua eta autozaintaren garapenaren aldeko laguntza ematea, Gorbeialdeko emakumeen genero kontzientzia sortaraziz, jarduera kulturaletan eta kirol jardueretan genero ikuspegia txertatuz, haien autozainta errazteko eta kultura zein kirol programazioak –zeinak genero kontzientzia hori sortzea sustatzen duen– beren ongizate pertsonala eta osasuna hobetzeko.
- Bigarrena **ahalduntzearen aldeko laguntzari** dagokio. Prozesua pertsonalean ez da amaitzen, baizik eta esparru kolektibora zabaltzen da. Horrela, banakotasunetik zein subjektibitate egindako lanak emakumeentzat erabilgarria izango da, beren interes kolektiboengatik borrokaren inguruko antolatzeko: beren genero interesengatik. Programa honek Gorbeialdeko emakumeen interesei lotutako helburuak barne hartzen ditu, beren boterea areagotzeko, erabakiak hartzean zein aldaketa sozialean parte hartzekotan, posizio kolektibo sendoago batetik.
- Hirugarrena **ahalduntze kolektiboaren aldeko laguntzari** dagokio. Berdintasuna sustatzen du espazio politiko ezberdinetatik, emakumeen partaidetzaren bidez, mugimendu feministaren printzipioak ezagutzearekin eta defendatzearekin.

Diagnostikotik eratorritako erronkei hurrengo helburu operatibo bidez ekingo zaie:

I. PROGRAMA: AHALDUNTZE PERTSONALAREN ALDEKO LAGUNTZA

- 1.1 HELBURUA: Gorbeialdeko herritarrak sensibilizatzea beren komunitaterako berdintasuna onuragarria dela azalduz, berdintasun eta justizia soziala lotzen duten eta emakumeen eta gizonen desberdintasuna arazo garrantzitsutzat jotzen duten pertsonen kopurua areagotuz.
- 1.2 HELBURUA: Kirolean genero arrakalak gutxiagotzea, emakumeen zein nesken partaidetza areagotuz, eta kirol elkarteetan zein Gorbeialdeko Kuadrillako erakundeen eskaintzan genero ikuspegia integratuz.
- 1.3 HELBURUA: Autozainketa ohiko praktikak garatzen dituzten Gorbeialdeko emakumeen kopurua areagotzea eta Gorbeialdeko Kuadrillan arreta sanitarioa hobetzea, eskuhartzean genero ikuspegia txertatuz.

II. PROGRAMA: AHALDUNTZE KOLEKTIBOAREN ALDEKO LANGUNTZA

- 2.1 HELBURUA: Gorbeialdeko mugimendu feminista sendotzea, hots, feminismoa ezagutzen duten pertsonen, feministak direnen, eta Berdintasunaren aldeko elkarteetan zein jardueretan parte hartzen dutenen kopurua areagotzea.
- 2.2 HELBURUA: udalerrietako zein Kuadrillako politika publikoen garapenean Gorbeialdeko Kuadrillako emakumeen mugimenduen eragin handiagoa lortzea.

III. PROGRAMA: AHALDUNTZE POLITIKOAREN ALDEKO LAGUNTZA

- 3.1 HELBURUA: erabakiak hartzeko lanpostuetan emakumeen eragina handitzeari zuzendutako laguntzeko eta trebakuntzarako programak areagotzea.

Aldi berean, helburu operatibo hauek KOLOREZKO neurrietan zehazten dira eta ekintzak, jarraian deskribatzen dira.



I. PROGRAMA: AUTONOMIA, AUTOESTIMUA ETA AUTOZAINKETAREN ALDEKO LAGUNTZA.

1.1 HELBURUA: Gorbeialdeko herritarrak sensibilizatzea beren komunitaterako berdintasuna onuragarria dela azalduz, berdintasun eta justizia soziala lotzen duten eta emakumeen eta gizonen desberdintasuna arazo garrantzitsutzat jotzen duten pertsonen kopurua areagotuz.

- 1.1.1. Gorbeialdeko Kuadrillan eta bere sei udalerrietan Arabako Jabekuntza Eskolaren, LAIAeskolaren ekintzak planifikatzeko emakumeen elkarleen mugimendua urtero laguntzea.
- Gorbeialdeko Berdintasun Foroarekin eta Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeekin bilerak egitea, ahalduz dagozkion emakumeen interesak definitzeko, foro bakoitzak nahi duen aldizkakotasunarekin. Planifikatutako ekintzak antolatzea eta ebaluatzea.
- 1.1.2. Egun seinalatuak ospatzea, Berdintasunerako aurrerapausoak eta erronkak agerian jartzeko sensibilizazio zein formazio ekintzekin: M8, M17, E28.
- Gorbeialdeko Berdintasun Foroarekin eta Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeekin definitutako interesaren arabera kanpainak antolatzea urtero, beste erakunde batzuetatik–AFAtik, Emakundetik– datozen baliabideak aprobetxatzeko beharra eta esfortzuak bateratzearen garrantzia estrategikoa kontuan hartuz.
- 1.1.3. Urtero Kuadrillako Berdintasun Topaketaren antolaketaren koordinatzea, Gorbeialdeko Berdintasun Foroaren eta Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeen partaidetzarekin.
- Eskualdeko Topaketa antolatzea eta ebaluatzea Gorbeialdeko Berdintasun Foroaren, Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeen partaidetzarekin.
- 1.1.4. Gorbeialdeko Ingurumen, Kultura, Kirol eta Euskara elkarleen mugimenduaren emakumeak Berdintasunerako ekintzetan inplikatzea.
- Kultura, Euskara eta Ingurumen Zerbitzuekin koordinatzea Berdintasunerako ekintzekin harremanetan dauden elkarleen artean hedatzearen.

1.2 HELBURUA: Kirolean genero arrakalak gutxiagotzea, emakumeen zein nesken partaidetza areagotuz, eta kirol elkarleetan zein Gorbeialdeko Kuadrillako erakundeen eskaintzan genero ikuspegia integratuz.

- 1.2.1. Kirol politikak garatzea genero ikuspegitik.
- Gorbeialdeko emakumeak kontsultatzea, bereziki, kirol elkarleetan parte hartzen dutenak, kirolaren inguruan beren beharrei buruz, Kuadrillako ekintzetan genero ikuspegia txertatzea sustatzekotan.
- 1.2.2. Kultura politikak garatzea genero ikuspegitik.
- Jaien edukiak eta jaietan parte hartzea genero ikuspegitik aztertzea.
- Kultura Teknikariak biltzea, urtero udalerriri bakoitzeko Kultura arloko ekitaldirik nabariena definitzeko, eta genero ikuspegia txertatzeko ideien inguruko aholkularitza eskaintzeko.

1.3 HELBURUA: Autozainketa ohiko praktikak garatzen dituzten Gorbeialdeko emakumeen kopurua areagotzea eta Gorbeialdeko Kuadrillan arreta sanitarioa hobetzea, eskuhartzean genero ikuspegia txertatuz.

- 1.3.1. Indarkeria matxistari aurre egiteko Protokoloaren esparruan, osasun zentroekin harremana aprobetxatzea kuadrillako emakumeen eskaerak jasotzeko eta arreta hobetzeko neurriak baloratu ahal izateko jarduerak antolatzearren.
- Generoari buruzko topaketak antolatzea eta Gorbeialdeko Kuadrillako Osasun Zentroak zein Kantsultategiak Osasunari eta elkarrean mugimenduaren emakumeak parte hartzera gonbidatzea, hobetzeko neurri komunak elkarrekin definitzeko.
- 1.3.2. Urtero maiatzaren 28a, Emakumeen Osasunaren aldeko Nazioarteko Eguna ospatzea, autozainketa sustatzeko ekitaldiak antolatuz.
- Maiatzaren 28a, Emakumeen Osasunaren aldeko Nazioarteko Eguna ospatzea antolatzea, jarduerekin eta ekintzekin Gorbeialdeko Berdintasun Foroarekin eta Aramaioko zein Zigoitiko Berdintasunerako taldeekin koordinazioan. Aurreko neurriari ekiteko egun hau aprobetxatzea.



II. PROGRAMA: AHALDUNTZE KOLEKTIBOAREN ALDEKO LAGUNTZA

2.1 HELBURUA: Gorbeialdeko mugimendu feminista sendotzea, hots, feminismoa ezagutzen duten, euren burua feministatzat hartzen duten, eta berdintasunaren aldeko elkarteetan zein jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua areagotzea.

- 2.1.1 Mugimendu feministaren aldeko laguntza ematea Gorbeialdeko emakumeen ahizpatasuna sustatzeko.
 - LAIA eskolari dagokionez, plangintzaren zati bat erreserbatzea mugimendu feministarako zein emakumeen elkarteetarako coaching, aholkularitza eta jardunbide onen elkartrukatzeke ekintzak egiteko, ikuspegi dinamikotik, eta zortzi pertsona gutxieneko kopuruarekiko agertze-konpromisoarekin.
 - Elkarte feministaren alde laguntzea, herritarrak erakartzen dituzten ospakizunak eta jaiak antolatzeke orduan, elkarte hau ezagut eta lagun ditzaten eta haien ekintzetan parte har ditzaten.
- 2.1.2 Borroka feministaren helburuak Gorbeialdean hedatzeko ekintzak egitea.
 - Zigoitiko Jardunaldi Feministak urtero antolatzea eta horietan Gorbeialdeko emakumeen partaidetza sustatzea.
 - EAeko beste eskualdetako eta beste kuadrilletako esperientziak bilatzea, zeintzuk ekitaldietan feminismoa zalbaltzeko arrakastatsuek izan diren. Eta egingarriena baloratzen dena Gorbeialdera eramatea, proba pilotu moduan.

2.2 HELBURUA: Arabako Lurralde Historikoaren politika publikoen garapenean Gorbeialdeko Kuadrillako emakumeen mugimenduaren eragin handiagoa lortzea.

- 2.2.1. Arabako Foru Batzordean parte hartzea erraztea eta sustatzea.
 - Gorbeialdeko elkarten mugimenduari Foru Batzordearen jardueren eta deialdien inguruan informatzea eta parte hartzea erraztea eta sustatzea.



III. PROGRAMA: AHALDUNTZE POLITIKOAREN ALDEKO LAGUNTZA.

3.1 HELBURUA: Erabakiak hartzeko postuetan emakumeen eragina areagotzeko laguntza zein trebakuntzarako programak areagotzea.

- 3.1.1. Gorbeialdeko Kuadrillako emakume hautetsiei laguntzeko Virginia Woolf Basqueskolan parte hartzearekin jarraitzea.
- Virginia Woolf Basqueskolako Idazkaritza Teknikoarekiko bileretara joatea eta han adostutako lanak betetzea.

3.2 HELBURUA: Erabakiak hartzeko postuetan emakumeen presentzia handiagotzeko zuzendutako laguntzeko eta trebatzeko programak areagotzea.

- 3.1.2. Gorbeialdeko Kuadrillako Kontzejuetako emakume hautetsien ahalduntzea sustatzea topaketa espazioak sortuz.
- Gorbeialdeko kontzejuetako emakume hautetsien topaketak antolatzea. Beren beharrei erantzuteko kanpainak edo aholkularitza diseinatzea.



II. ARDATZA. BIZITZAREN JASANGARRITASUNA: BALIABIDEEN ETA ZAINKETEN BANAKETA

A. ZER DA BIZITZAREN JASANGARRITASUNA ETA ZERGATIK BARNE HARTZEN DU BALIABIDEEN ETA ZAINKETEN BANAKETA?

Pertsonen bizitzan, gutxienez, oinarrizko mendekotasun bi aurki ditzakegu: izadiaren mendekotasuna, bizirik irauteko behar dugun guztia izaditik baitator; eta denok elkarren mende gaude, beste pertsonak ematen dizkiguten zainketak behar baititugu. Gizakiak jaiotzatik zaurgarriak gara, eta gaixorik jartzen, zahartzen eta hiltzen gara, eta are gehiago, osasuntsuak izanda ere, behar afektiboak dauzkagu, zeintzuk bestearekin bakarrik asebetetzen diren.

Hala ere, egungo sistema sozioekonomikoak bi mendekotasunak alde batera utzi funtzionatzen du: pertsonen eta munduaren artean haustura bat ezartzen du, eta ez du kontuan hartu bizitzaren jasangarritasunerako zainketen-lanaren garrantzia. Hau dela eta, ordaindutakoak diren ala ez alde batera utzita, ez ditu zainketen beharrak betetzen. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren arabera, gizakien zainketen oinarrizko beharren asebetetzea emakumeei dagokiela normalizatu da. Izan ere, lan hauek ez dira analisi makroekonomikoan islatzen, era prekarioan garatzen dira, mundu osoan zehar emakumeen bizitzak baldintzatzen dituzte, eta “zainketen krisi zibilizatorioa” delakoa sortu dute.

Zainketen kontuari Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Planetan ekin zaio, erantzunkidetasunerako neurrien bidez, tradizioz feminizatuta egon diren eginkizunetan eta zainketaren roletan gizonen inplikazioa aipatuz, eta bizitza pertsonalaren, familiarraren eta laboralaren kontziliaziorako neurrien bidez. Tradizioz ere, esfera pribatua eta esfera publikoa bananduta izan direla dirudi, baina izan ere, bi arloek pertsona bakoitzaren behar produktiboak eta erreproduktiboak osatzen dituzte. Honetara zainketen erantzunkidetasuna gehitu behar da: gizonen inplikazioa ez ezik, erakundeen erantzunkidetasuna ere behar da, eta oro har, sistema sozialarena, bai zainketetan, bai bizitzaren mantendurarako eta jasangarritasunerako.

Ikuspegi honetatik, bananduta daudela diruditen bizitzaren arloak uztartzeaz edo eginkizun feminizatuetan gizonak inplikatzeaz gain, gakoa, sistema soziala aldatzeko lan egitean datza: baliabideen, espazioen, denboraren eta zainketen banaketa simetrikoagoa lortzekotan. Banaketa horrek Amaia Perez Orozkok dioenez, “bizi duinak, bizitzekoak¹”, eskuratzeko ardaztuta izan behar du. Gainera, esan beharra dago testuinguru honetan, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren arabera, zainketa-lanak direla “zainketa-beharrei erantzuteko egiten ditugun jarduerak, eta ez bakarrik familiaren esparruan ordaindu gabeko etxeko lan deitu ohi ditugunak. Zainketa-lanak izan daitezke diruz ordaindutakoak edo ez²”. Berrito ere, Amaia Perez Orozco dagokienez, ikuspen honek dakar bizitzaren jasangarritasunerako zainketa-lanak erdigunean daudela, eta honen ondorioz, baliabideak berrorientatu behar direla. Horretarako, barneratu behar dugu gizaki interdependienteak garela eta bizirik irauteko besteon laguntza behar dugula. Baina, interdependentzia horren kudeaketa ezin da banaketa asimetrikoetan oinarritutako ereduetan eratu, non lanak pertsona zehatzei, esaterako emakumei dagozkien. Beraz, bizitzaren jasangarritasunerako oinarrizko lanetan erantzukizun kolektiboa onartzeko ereduak bilatzea beharrezkoa da.

¹ Perez Orozco, Amaia. “*Vidas dignas de ser vividas*”. *De vidas vivibles y producción imposible*. 2012. 3. orr.

² Gálvez Muñoz, Lina (zuz.). *La economía de los cuidados*. Deculturas Ediciones, Sevilla. 2016. 20. orr.

B. BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO BALIABIDEEN, ESPAZIOEN, DENBORAREN ETA ZAINKETEN BANAKETAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA.

Esparru honetan, lantaldeetan parte hartu duten emakumeek Gorbeialdean egungo eredu ekonomikoaren inguruan lan egin eta hausnartu behar dela azpimarratu zuten. Azaroaren 16ko lantaldean parte hartu duten emakume batzuek Amaia Perez Orozco aipatu zuten, eta Gorbeialdean sistema sozioekonomikoari buruzko hausnartzeko prozesuren bat egitea eskatu zuten, non haiek parte hartuko duten. Gainera, lan horretatik eratorritako ideien aplikazioak Gorbeialdean ezarri ahalko dira. Beste aldetik, ekonomia feministari buruzko ardura ekofeminismoarekin lotuta dago, zainketen-lanen hiru krisi zibilizatorio handietatik bat baita, beste bat da ingurumenaren jasangarritasuna. Bi krisiek planetaren emakumei dagozkien zergati eta ondorio komunak dauzkate. Horregatik, ingurumen arloarekin koordinazioan hausnarketa hau egitea interesgarria da. Bere jardueran genero ikuspegia txertatuz, bai Agenda Lokal 21en, bai Eskola Agenda 21en, eta Berdintasun Zerbitzuak eta Ingurumen arloarekin antolatzen dituen ekintzak koordinatuz.

Beste aldetik, eredu sozial zuzenagoa den eredurantz aldaketa ez da posible hezkuntzan genero ikuspegia txertatzen ez bada. Izen ere, pasaden azaroaren 28an egindako parte hartzeko prozesuan gai honi lehentasuna handia eman zitzaion Planaren iraunaldiaren lau urteetan zehar lantzeko. Beraz, Gorbeialdeko hezkidetza ereduetan aurrera egitea, hezkidetza mahai bat sortzea, aurrekontu zehatza ematea eta Kuadrillako esparru formaletan zein informaletan Hezkidetza Plana sortzen duten hausnartzeko prozesua egitea ekiteko erronkak dira.

Lanildoaren aldaketa baliabideen banaketa simetrikoaren ikuspegi baterantz joan behar direla kontuan hartuta, Kuadrillan aurkitutako enplegura sartzeko genero arrakalak gora joan izateak enpleguaren sustapenean eragina duten arloetan genero ikuspegia txertatu behar dela dakar. Kuadrillako konpetentziak mugatuak badira ere, 2018an lurralde historiko mailan pobrezia feminizazioari buruzko ikerlan bat egin da, non Gorbeialdeak parte hartu duen, eta ikerketa honen eratorritzen diren neurriak ezartzeko lan egin beharko da. Gainera, Landa Garapenerako Plan bat badago, zeinak kuadrillako landa-eremuko emakumeen enpleguan eragina duen. Plan hau datozen lau urteetan aldatu behar denez, genero ikuspegia txertatzeko koordinatu behar izango da.

Beste aldetik, produktiorako eta erreproduktiorako beharrezkoak diren bizitzaren arloak, hau da, bizitza pertsonala, familiarra eta laborala espazio zehatz batean garatzen dira, kasu honetan, Kuadrillako udalerrietako hiri esparruan eta landa-eremuan. Beraz, espazio honen plangintzak bizitzaren arlo guztiak antolatzea erraztu behar du, zeinak Hiri Antolamendurako Plan Orokorretan, HAOetan genero ikuspegia txertatzea dakarren: bai onestear edo hastear daudenetan, Legutian, Zigoitian eta Zuian; bai prozesuan edo onetsita daudenetan, Aramaion, Arratzua-Ubarrundian eta Urkabustaizen.

Gainera, bizitzaren jasangarritasunak izaki interdependienteak ez ezik, ekodependienteak ere garela barneratzea dakar, bizirik irauteko baliabide naturalak behar ditugula. Beraz, enplegu eta hirigintza politiketara genero ikuspegitik jasangarritasun ekologikoa barneratu beharko dituzte. Hauek, Agenda Lokal 21en eta Eskola Agenda 21ren bidez hartutako konpromisoetatik eratorritakoak dira; eta aldi berean, konpromiso hauek bizitzaren jasangarritasuna agerian jarri beharko dute baliabide naturalak zaintzeko eta, bizitzarako erreproduktzioa bermatzeko garrantzitsuenaren arabera banatzeko.



Lan hau antolatzeko, hiru programa proposatu dira:

- **Zainketen banaketa, ekonomia feminista eta ekofeminismoa** programaren bidez, Gorbeialdean ekonomia feministaren, ekofeminismoaren ezarpenei buruz hausnarketa garatzeko lan egitea proposatzen da, Ingurumen arolarekin koordinazioan eta hezkidetzan lan egitea adin goiztiarretatik, Berdintasunarekin erlazioatutako balioak, zainketen garrantzia eta bizitzaren jasangarritasuna transmititzeko.
- **Bizitzaren jasangarritasunerako baliabideen eta esparruen banaketa** programaren bidez, emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatzen da, pobrezia-aren feminizazioari buruzko ikerlan baten bitartez eta landa-eremuko emakumeengan enplegua sustapenaren bidez; eta espazioak aztertzen dira zainketak erazten dituen lurralde-eredu bat sustatzeko.

Programa hauek helburu operatibo hauen bitartez garatuko dira:

IV. PROGRAMA: ZAINKETEN BANAKETA, EKONOMIA FEMINISTA ETA EKOFEMINISMOA.

- 4.1. HELBURUA: Bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako garapen eredura Gorbeialdetik nola lagundu aztertzekeo eztabaida publikoa sustatzea.
- 4.2. HELBURUA: Gorbeialdeko Kuadrillako ikastetxeetan hezkidetzak integratzen jarraitzea, genero ikuspegia txertatuz kulturaren, politikan zein praktikan, eta heziketa proiektuen edukien artean emakumeen zein feminismoaren kontribuzio soziala barne hartuz.

V. PROGRAMA: BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO BALIABIDEEN ETA ESPARRUEN BANAKETA

- 5.1. HELBURUA: Pobrezia-aren feminizazioa gutxitzea, gizarte zerbitzuak egokituz eta Gorbeialdeko landa-eremuko emakumeak kuadrillako enplegura sartzea sustatuz.
- 5.2. HELBURUA: Gorbeialdeko udalerrietan hirigintza plangintzarako eta garraio jasangarrietarako irizpideak ezartzea, zeintzuek pertsonen autonomia eta erantzunkidetasuna zein kontziliazioa erazten dituzten.

Garatzeko, hurrengo neurriak proposatu dira:

IV. PROGRAMA: ZAINKETEN BANAKETA, EKONOMIA FEMINISTA ETA EKOFEMINISMOA.

4.1. HELBURUA: Bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako garapen eredura Gorbeialdetik nola lagundu aztertzeko eztabaida publikoa sustatzea.

- **4.1.1. Gorbeialdeko Kuadrillako Eskola Agenda 21 eta ikastetxeetan hezkidetzak proiektuak koordinatzea, izaki interdependentek eta eko-dependienteak garelako barneratzeari eta bizitzaren jasangarritasunari lotuta, eta IGEak, ikasleak eta irakasleak inplikatzea.**
 - Agenda Lokal 21 en arduradunarekin eta Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun arloaren arduradunarekin bilerak egitea ikastetxeetan egin daitezkeen baterako ekintzak koordinatzeko eta Eskola Agenda 21 en ekintzetan genero ikuspegia sartzearen.
 - Ikastetxeetan bilerak egitea ekintzak gauzatzeko.
- **4.1.2. Agenda Lokal 21 en eta Berdintasun Zerbitzuaren plangintza koordinatzea.**
 - Diseinatzen diren baterako ekintzen segimendua egitea eta koordinatzea..
 - Baterako ekintzak diseinatzea eta ezartzea, proposamen ekofeministak eta ekonomia feministakoak, jolas-ikuspegitik eta paraidetza-ikuspegitik; zehazki, herritarrengan Amaia Pérez Orozcok interes handia sortarazten du.
 - Ingurumen, Berdintasun arloaren eta Landa Garapenerako Elkartearen arduradunekin baterako ekintzak egitea, ingurumenaren eta bizitzaren jasangarritasunerako Gorbeialdeko emakumeen ekarpenen garrantzia azpimarratzeko eta gizonen erantzunkidetasuna sustatzekotan.

4.2. HELBURUA: Gorbeialdeko Kuadrillako ikastetxeetan hezkidetzak integratzen jarraitzea, genero ikuspegia txertatuz kulturaren, politikan zein praktikan, eta heziketa proiektuen edukien artean emakumeen zein feminismoaren kontribuzio soziala barne hartuz.

- **4.2.1. Hezkidetzak proiektuen koordinazioa eta bultzada Gorbeialdeko ikastetxeetan.**
 - Gorbeialdeko ikastetxeetan urtero aholkularitza ematea, irakasleak, ikasleak eta IGEak inplikatzen dituzten hezkidetzak proiektuak antolatzea.
 - IGEei aholkularitza ematea erakunde finantzazailerari beren proiektuetarako diru-laguntzak eskatzeko.
 - Hezkidetzak ekintzak egiteko urteko aurrekontua sortzea.
 - Gorbeialdeko Kuadrillako Hezkidetzarako koordinazio mahaia sortzea, Kuadrillako hezkidetzak proiektuak koordinatzeko.
- **4.2.2. Gorbeialdeko Kuadrillako hezkidetzak ez formalean genero ikuspegia txertatzen jarraitzea.**
 - Hezkidetzan formazio-ekintza prozesuak egitea aisialdiko begiraleentzat.
- **4.2.3. Gorbeialdeko Kuadrillako Hezkidetzak Formalerako eta Ez formalerako Diagnostiko bat eta Plan Integral bat egitea.**
 - Gorbeialdeko Kuadrillako Hezkidetzak Formalerako eta Ez formalerako Diagnostiko bat eta Plan Integral bat egiteko proiektu bat kontratatzea.



V. PROGRAMA: BALIABIDEEN ETA ESPARRUEN BANAKETA BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO.

5.1 HELBURUA: Pobreziaren feminizazioa txikiagotzea, gizarte zerbitzuak egokituz eta Gorbeialdeko landa-eremuko emakumeak Kuadrillako enplegura sartzea sustatuz.

• **5.1.1. Zainketen banaketaren eta pobreziaren feminizazioaren azterketa.**

- Arduradun politikoekin eta teknikoekin prozesuak diseinatzea, gomendioak ezartzekotan.
- Gorbeialdeko Udalerrietako eta Kuadrillako pertsonalaren eta herritarren artean pobreziaren feminizazioari buruzko ikerlanaren hedatze prozesua egitea.
- Hartutako neurrien segimendua egitea.

• **5.1.2. Gorbeialdeko Landa Garapenerako Elkartean eta Sustapen Ekonomikorako Sailean genero ikuspegia txertatzea.**

- Elkarrekin diseinatutako ekintzen segimendua egitea eta koordinatzea.
- Gorbeialdeko Landa Garapenerako Planean genero ikuspegia txertatzea, Plangintzarako dokumentu berria egin denean.

5.2 HELBURUA: Gorbeialdeko udalerrietan hirigintza plangintzarako eta garraio iraunkorrerako irizpideak gauzatzea, zeintzuek pertsonen autonomia eta erantzunkidetasuna zein kontziliazioa errazten dituzten.

• **5.2.1. Gorbeialdeko Kuadrillako Udaletako HAPOetan genero ikuspegia integratzea.**

- HAPOa egingo duten edo HAPOaren aldaketa egingo duten udalerrietako hirigintza araudiaren Genero Inpaktuaren Ebaluazio bat egitea.
- Pertsonal politiko zein tekniko arduradunentzat Hirigintza inklusiboari buruzko formazio bat egitea.

• **5.2.2. Egingo den Arabako Hiriarako Garraioaren Plan Integralaren landa-eremuko herritarren higikortasun beharren genero azterketan parte hartzea.**

- AFAk landa-eremuko herritarren higikortasun beharren genero azterketarako ekintza egingo duenean, Gorbeialdeko udalerrietako emakumeen ekarpenak jasotzea lan-taldeak antolatzea.

III. ARDATZA. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK, GIZA ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK.

A. ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da. Hala ere, aldi berean, eta izendatu barik gure bizitzan urraketarik arruntena da. Maria Naredo jurista eta Berdintasunerako Politiketan, indarkeria matxistan eta erreparazioan adituaren arabera: *“ez da kasualitatea giza eskubideen urratzeari kalifikazio horrez gabetzea, bere egiturazko, harremanezko dimentsio soziala kenduz, “aldizkako indarkeria” edo “gizarte gaitza” deiturak jarritz. Egoera honek automatikoki partaideak diren estamentu sozialen erantzukizunari uko egiten dio, gizarte orokorrak indarkeria matxistaren benetako ezaugarriak ulertzea oztopatzen.”*³.

Gizonek emakumeen aurka emakume izateagatik baliatzen duten indarkeria da eta hala baliatzen da genero- diskriminazioen ondorioz eta eredu ez-pareko eta hierarkiko honetan gizonek emakumeekiko duten boterearen ondorioz, emakumeak mendekotasun-egoeran baitaude haiekiko. Hori dela eta, eskubideak bermatzeko ikuspegitik, ardatz honen helburua da EAEko erakunde publikoen ekintza bideratzea, emakumeek eta beste biktima batzuk –haien seme-alabak, esaterako– indarkeriarik gabe bizi daitezen.

VII. Planean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean egiten den definizioarekin bat etorritik, eta emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenari (2011ko maiatzaren 11, Istanbul) jarraikiz, *emakumeen aurkako indarkeriatzat hartzen da generoan oinarritutako indarkeria oro, zeinak berekin dakarren edo ekar dezakeen emakumeek kalte edo oinaze fisikoa, sexuala, psikologikoa eta ekonomikoa jasatea, baita mehatxuak, bortxa eta askatasun-gabetze bidegabeak ere, bizitza publikoan edo pribatuan.*

Horretaz gain, Plan honen esparruan, indarkeria matxistaren inguruan ere hitz egiten dugu, eta indarkeria matxistatzat honako hau jotzen dugu: sexu/genero/sexualitate sistemaren heteronormatibitatea betetzen ez duten gorputz anitzei zein emakumei (beren gorputzek botere hierarkiak jasaten dituzte) zuzendutako kontrol erak zein ekintzak, erasoak, gaitzespenak, inposaketa zuzena, estrukturala edo sinbolikoa. Bi kasuetan indarkeria matxista haurtzarotik agertzen eta bizitza osoan zehar mantentzen da. Indarkeria matxistak indarkeria sexista ez ezik, transfobia, lesbofobia eta homofobia ere barne hartzen ditu.

Indarkeria matxista kontuetan, gaur egun, giza eskubideen ikuspeirik kontuan hartzen ez duten esparru juridikoan gaude: ez estatukoak, ez EAEkoak ez dute biktimen zein biziraunen erreparazioarako eskubidea islatu 2014ra arte. Urte hartan, Estatu espainiarrak 2011ko Istanbulen Hitzarmena berretsi zuen, barruko arau lotesle bihurtuz, baina oraindik gauzatzeko prozesuan dago:

Giza eskubideen urratzeari aurre egiteko erreparazioarako eskubidea, nazioarteko eskubidearen arabera, lau alde osatzen dute:

- **Errehabilitazioa eta lehengoratzeko osoa:** Indarkeria matxistari aurre egin edo egiten dion emakumea, ahal den heinean, eraso gertatu baino lehen egoerara itzultzean datza. Honek esan nahi du lehengoratzeko fisikoa, psikikoa eta soziala bermatzea beharrezko neurriak hartuko direla. Istanbulen Hitzarmenaren arabera, giza eskubideen erreparazioarako betebeharrak indarkeria matxistari aurre egin dioten emakumeen

³ “Immigrazioa eta indarkeria matxista” Jardunaldia. Donostia, 2012ko ekainaren 6a. María Naredoren hitzaldia.



lehengoratzeko osoa edo errehabilitazioa barne hartzen ditu, bai epe ertainerako, bai epe luzerako. Gainera, lehengoratzeko oso hori lortzekotan emakume bakoitzaren aniztasuna eta ezaugarriak kontuan hartuko dira.

- **Kalte-ordain ekonomikoa:** Kalte fisikoa, kalte mentala, mina, sufrimendua eta egonezin emozionala dira; aukeren galera, heziketa, enplegu eta prestazio sozialak barne; kalte materialak eta diru-sarrerak, “*lucro cesante*” izenekoa barne; opea eta duintasunari egindako kaltea; laguntza juridikoa edo espezializatua, zerbitzu medikoak, psikologoak edo sozialak jasotzearen ondorioz hartutako gastuak; Estatuak indarkeria matxistari aurre egin edo egiten dion emakumeak kalteari dagokion ordaina jasotzea bermatu behar du; Estatuak ordain ekonomikoa aurreratuta ahal du, baita indarkeria egin zuen gizonari ordaindutako kopurua eskatu ere. Juridikoki, kalte-ordainak edo ordain ekonomikoak erantzukizun zibilaren onarpena dakar, eta, ondorioz, indarkeria matxistaren tratamenduarekiko konpromisu handiagoa.
- **Ez-errepikapen bermea:** Estatuak eraso errepikatuko ez dela, eta biziraunak errepresalietatik edo mehatxuetatik babesa bermatu behar du. Erreparaziorako eskubidearen alde horrek banakako dimentsioa barne hartzen du, esaterako, prozesuaren egitura gertatzen den indarkeria, edo erakundearen arteko berbiktimizazioa.
- **Biktimaren edo biziraunaren asebetetzea:** Urratzeak gelditzea, gertaeren egiaztatzea, egiaaren zabaltze publikoa, kalte gehiago egin barik edo indarkeria matxistari aurre egin dion emakumearen, lekukoaren edo beste pertsona batzuen segurtasuna mehatxatu barik; desagertutako pertsonak non dauden arakatzeko; kulturaren araberrak ehorzketa berriak egitea; indarkeria matxistari aurre egin dion emakumearen duintasuna eta ospea berrezartzen duten aitortpen ofizialak. Alderdi honek errelato duina eta hausturarik gabekoa egingo dela esan nahi du. Emakumeen bizipenen zein, indarkeria matxistak gure gizartearen egitura sakonenean dauzkan erroen onarpena beharrezkoa da.

EAEko Berdintasun Planak bere lan-ardatza kontzeptu honetan kokatzen du, politika eraginkorrak ezartzea bilatuz, zeintzuek biktimak, biziraunak eta beren bizitzetan indarkeriak eragindako inpaktuak erdiguneak kokatzen dituzten. Esparru honetan egingo da Gorbeialdeko Indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko Plana.

B. GORBEIALDEKO KUADRILLAN INDARKERIA MATXISTA KONTUETAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA.

Ebaluazioa parte hatu zuten herritarren arteko adostasunaren bat da indarkeria matxistarik gabeko bizitza bizi behar dela, oinarrizko giza eskubide bat izateaz gain. Proiektu honetan kokatuta, herritarrei egindako galdetegian jasotako emaitzetan ere hau erakusten da. Era berean, Planen iraunaldian zehar parte hartzeko prozesuen eta garatutako jardueretan ere egiaztatzen da, bereziki 2017an: Berdintasunerako jarduketara dimentsio sistematiko eta estrategiko bihurtu zenean.

Izan ere, ekintza hauen esparruan Diagnostiko baten egitea indarkeria sexistara kontuetan aurrerapen handienetarikoa bat da, non lehenengo ondorioa honako hau den:

“Elkarrizketaturiko pertsona kopuru handi baten aburuz, indarkeriaren forma ikusgarrien kontzientzia handiagoa dugu, normalizatzen diren indarkeria motak ahaztuz eta hauek justifikatzeko eraren bat aurkituz, emakumeak indarkeria mota hauen errudun edo erantzule bezala agertzen direlarik. Ez da gutxitan izeberg-aren metafora entzun, zera adierazteko: arazoak suposatzen duenaren parte txiki bat baino ez dugu antzematen, kasu gehienak estaldurik gelditzen direlarik. Zentzu honetan, kontzientziatzeko, sentsibilizatzeko, formazioa emateko eta indarkeria matxista forma leunenak antzemateko eta lantzeko beharra nabarmendu nahi dugu: hitzezkoak,

emozionalak, ekonomikoak, ... Indarkeria hauek emakume talde desberdinetan era ezberdinetan adierazten dira, adibidez, emakume gazteengan, nagusiengan, migranteengan, etab.”⁴

Izan ere, hain indartsua da ondorio hau, ezen diagnostiko esparruan egindako bi lan taldeetan agertu zen: Gorbeialdean ikusten ez den indarkeria matxista ere badago, eta komunitate txikia denez, ahozko indarkeriak, edo espazioaren erabileran ematen direnak, matxismoak eta mikromatxismoak, indarkeria formarik esplizituena barne, nabarmentzea ez da erraza. Beraz, indarkeria hauek nabarmentzen eta borrokatzen ikasteko autodefensa feminista tailerrak denboran zehar egiten jarraitzea eskatzen dira.

Horregatik, jarduera batzuk egin badira ere, esaterako, Beldur Barik programan parte hartzea edo pertsonal politikoari formazioen bat ematea edo jaietan indarkeria matxistaren prebentzioari ekitea; lan zabalagoa zein sakonagoa egitea beharrezkoa da, giza eskubideen ikuspegitik Gorbeialdeko Indarkeria Matxistaren aurkako Plan bat egitearen bidez, zeinak prebentzioan, sentsibilizazioan, erakunde arteko koordinazioan, detekzioan, arreta integralean, kaltearen erreparazioan, salaketa publikoan eta emakumeen memoria berreskuratzean lan egiteko estrategia jasotzen eta antolatzen duen, eta arlo polizialean, sanitarioan eta arreta, hezkidetzan zein elkartean arloetan ekintza eta parte hartzea koordinatzen duen.

Plan honek, Erakunde arteko Jarduteko Protokoloaren segimendua egiten duten mahaiak barne hartu behar ditu, beren esperientzia eta detektatzen dituzten hobetze-guneak ekarri ahal izatekotan. Indarkeria matxistaren aurkako Planaren egiteak, Protokoloa baino haratago joatea dakar: herritarren prebentzioa zein sentsibilizazioa, eta elkartean mugimenduaren, hezkuntza arloaren eta herritarren inplikazioa, formazioa eta partaidetza integratuz; sarbide eta eragile eraldatzaile funtzioetan.

Plan honen proposatutako jarduketak, orain arte lan egin eta lan egingo dena jasotzen du, bi programatan:

Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa programaren helburuak:

- Herritarren indarkeria matxistaren zergatzei eta ondorioei buruz sentsibilizatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sendotzea eta finkatzea, praktika kulturekin eta sozialekin erlazionatutako indarkeriaren agerpenak barne hartuz.
- Indarkeria matxista gazteengan prebenitzea.

Detekzioa, arreta koordinatua zein integrala eta kaltea erreparatzeko programaren bidez hurrengo lortu nahi da:

- Eskuhartzea nazioarteko indarkeriaren biktimen arretaren kalitate estandarrekin bat egitea.
- Biziraunak enplegura sartzeko aukeren sistemaren eskuragarritasuna eta erabilgarritasuna hobetzea.
- Kaltearen erreparazio pertsonala eta kolektiboa arreta sisteman txertatzea.
- Aipatutako printzipioetan oinarritutako Profesionalen lan prozesuak mantentzea, udalerrien eta erakundeen arteko koordinazio eraginkorretan eta trebakuntza jarraituan.

⁴ Sortzen Aholkularitza (2016). “Gorbeialdea Eskualdeko Diagnostika: Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumei arreta hobeagoa emateko datuak, iritziak eta proposamenak”. 63. orr.



Horretarako, proposatzen diren helburuak honako hauexek dira:

VI. PROGRAMA: INDARKERIA MATXISTAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA.

- 6.1 HELBURUA: Desberdintasun eta indarkeria matxistaren arteko lotura agerian jartzen duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua areagotzea.
- 6.2 HELBURUA: Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arteko lotura agerian jartzen duten duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten gazteen kopurua areagotzea.

VII. PROGRAMA: ANTZEMATEA, ARRETA KOORDINATUA ZEIN INTEGRALA ETA KALTEAREN ERREPARAZIOA.

- 7.1 HELBURUA: Indarkeria matxistaren inguruko ezagutza areagotzea errazten duen plan bat egitea, deribazioa hobetzeko, biziraunei arreta integrala eta koordinatua bermatzeko ahalduntzearen ikuspegitik eta kaltearen erreparazioa.
- 7.1.2 HELBURUA: Indarkeria matxistaren biktimen Arreta Hobetzeko Erakunde arteko Koordinazio Protokoloa ezartzea.



VI. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA.

6.1 HELBURUA: Desberdintasunaren eta indarkeria matxistaren arteko lotura agerian jartzen duten programetan zein jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua areagotzea.

- **6.1.1. A25 ospatzeko kanpainak egitea elkarteen mugimenduaren partaidetzarekin.**
 - Urtero A25 ospatzea AFArekin, Gorbeialdeko Berdintasun Foroarekin eta Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeekin koordinazioan
- **6.1.2. Indarkeria matxistak gaitzesteko ekintza publikoak egitea eraso hauek plazaratzen direnean, biziraunei errespetua bermatuz, egia hedatzea eta bizitakoaren aintzatespen soziala bermatzeko emakumeei protagonismoa emanez, eta berbiktimizazioa saihestuz.**
 - Indarkeria matxistaren adierazpen publikoak daudenean, gaitzespen ekintza publikoak antolatzea, indarkeria horri aurre egin dioten emakumeen adostasunarekin eta gainbegiratzearekin.
- **6.1.3. Gorbeialdeko udalerrietako jaietan indarkeria sexista prebenitzeko ekintzak egitea.**
 - Indarkeria matxista prebenitzeko eta indarkeria matxistarik gabeko zein berdintasunaren aldeko jaiak ospatzea bermatzeko neurriak udalerrri bakoitzeko elkarteen mugimenduarekin diseinatzea, jaiak ospatu baino lehen.

6.2 HELBURUA: Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arteko erlazioa antzematen duten gazteen kopurua areagotzea.

- **6.2.1. Beldur Barik programan parte hartzea, kuadrillako partaidetza koordinatuz.**
 - Adostutako ekintzak antolatze eta ebaluatzea.
 - Beldur Barik programa ezartzeko beharrezko ekintzak diseinatzea, Gorbeialdeko kuadrillako ikastetxeekin, gaztelekuarekin elkarlanean.
- **6.2.2. Gorbeialdeko ikastetxeek indarkeria matxista prebentziorako baliabideetan parte hartzea hedatzea eta sustatzea. Baliabide horiek EAEko udaletan eskuragarri daudenak dira.**
 - Gorbeialdeko ikastetxeetan "Hitz kolpez" programa edo bestelakoak ezartzea koordinatzea.



VII. PROGRAMA: ANTZEMATEA, ARRETA KOORDINATUA ZEIN INTEGRALA ETA KALTEAREN ERREPARAZIOA.

7.1. HELBURUA: Indarkeria matxistaren eta bere agerpen ezberdinen inguruko ezagutza areagotzea, deribazioa hobetzeko, biziraunei arreta integrala zein koordinatua bermatzeko ahalduentzaren ikuspegitik eta kaltearen erreparazioa.

- **7.1.1. Indarkeria matxistari aurre egiteko I. Plana Giza Eskubideen eta erreparaziorako eskubidearen ikuspegitik egitea, 2017an Gorbeialdeko Kuadrillan egindako Indarkeria matxistaren egoeraren Diagnostikoaren emaitzak kontuan hartuz.**
- Gorbeialdeko Kuadrillako Indarkeria matxistari aurre egiteko I. Plana Giza Eskubideen eta erreparaziorako eskubidearen ikuspegitik egiteko prozesua kontratatzea.
- **7.1.2. Indarkeria Matxistaren emakume biktimen Arreta Hobetzeko Erakunde arteko Protokoloa ezartzea.**
- Gorbeialdeko Kuadrillako Protokoloaren Erakunde arteko Koordinazio Mahaia osatzen duen pertsonalari formazioa eskaintzea.
- Protokoloaren Erakunde arteko Koordinazio Mahaiaren bilerak urtero antolatzea.

8. GORBEIALDEKO KUADRILLAKO I. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIOA

Gorbeialdeko Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasun Planaren segimendua eta ebaluazioa egiteko organo arduraduna Kuadrillako Berdintasun Unitatea da.

Ebaluazioari ekingo zaio estrategia plural eta malgu batetik, zeinak Plana gauzatzeko urteetan zehar, momento ezberdinetan, honako hau konbinatzen duen:

- Planaren ezarpenaren balorazio sakona eta osoa, kontuak emateko eta betetze-graduaren balorazio orokorra egiteko asmoarekin.
- Berdintasunerako Politiken inpakturako gaketat jotzen diren alderdi zehatzetan azterketa ardaztuak egitea, ikasteko eta hobetzeko oso erabilgarriak baitira.

Prozesua estrategia ezberdinak konbinatuko ditu, zeintzuek emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Politiketara gai gakoiei buruz hausnartzea erraztuko duten

A. BETETZE-GRADUAREN EBALUAZIOA

Betetzearen ebaluazioa bi prozesuren bidez egingo da:

- **Datuen jasotze kuantitatiboa:** AFaren informazioaren jasotze sisteman oinarrituko da: sistema honen oinarria sei ekintza motaren informazioaren jasotze mekanizatuan datza:
 - 1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin.
 - 1.1.2 Onuradun erregistratuak.
 - 1.1.3 Kanpainen eta jaien onuradunak.
 - 1.2.1 Indarkeria matxistaren inguruko arreta.
 - 2.1.1 Produktu finalistak: ikerlanak, planak eta protokoloak egiteko prozesuak.
 - 2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa.
 - 2.2 Garatutako egiturak.

Ekintza mota bakoitzak bere adierazle estandarrak dauzka, lurralde osorako komunak direnak. Plana zehazteko atalean ekintza bakoitzerako zein fitxa erabiliko den zehazten da.

- **Datuen jasotze kualitatiboa:** Berdintasun Unitatearen edo Plana ezartzeko parte hartu duten pertsonen oharretan, hautemateetan zein balorazioetan oinarrituta.



Urtea amaitzean, Berdintasun Zerbitzuak informazio guztiaren azterketa egingo du, emakumeen eta gizonen Berdintasunaren inguruko plangintzari dagokion jarduketari buruzko aipatutako memoria egiteko asmoarekin.

I. Berdintasun Planaren ezarpenerako denboraldia amaitzean, Berdintasun Zerbitzuak betetze-graduaren, aurrekontuen ezartze-graduaren eta kronogramaren ebaluazioa egingo du.

B. KOHERENTZIAREN EBALUAZIOA

Metodologia kualitatiboaren bidez garatuko da, eta Gorbeialdeko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Politiken dimentsio kontzeptualari zein funtsezkoari ekingo zaie; beraz, jarduketan gauzatzea baino haratago joango da, eduki politikoak aztertzearen, eta beren kalitateari eta eraldaketarako potentzialari buruz hausnartzekotan.

C. PROZESUAREN EBALUAZIOA

Gauzatzeko prozesuan bertan sakontzean ardaztuta, bere antolaketa eta eraginkortasuna inplikazioa duten agenteen balorazioari ikuspegi pluraletik, laguntzarako tresnarekiko bere asebetetzea eta horien erabilgarritasunaren pertzepzioa identifikatuz. Ondorioz, ikastean zein hobetzean ardaztutako ebaluazio mota bat da, zeinak erabakiak hartzeko alderdi kualitatibo garrantzitsuak txertatzen utziko duen.

D. INPAKTUAREN EBALUAZIOA

Berdintasunerako Politikek dituzten eraginak aztertuko dira, bai espero direnak, bai espero ez direnak. Honako galdera bezalakoei erantzungo die: Nola aldatu da Berdintasunerako Politikaren kolektibo hartzaileen egoera? Nola aldatu da emakumeen eta gizonen desberdintasunaren egoera gizartean orokorrean? Horretarako, bigarren mailako iturriak jasotzean eta aztertzean oinarritutako metodologia eratu da:

- Estatistika ofizialaren datuak.
- Udalerrietako iturrien datuak, mainstreaminga ezartzeko prozesutik aurrea eskuratuak.

Era berean, Gorbeialdeko herritarrekin parte hartzeko prozesuan egindako azterketa kualitatiboan oinarritu da.



9. NEURRIAK GAUZATZEN: EKINTZAK, ADIERAZLEAK, ARDURADUNAK ETA KRONOGRAMA.

Hona hemen, helburu bakoitzerako zehaztu diren gomendatutako ekintzak, neurrien betetze-adierazleak, arduradunak eta kronograma, proposatutako neurriak ezartzekotan.

I.GOBERNU ONA

I. PROGRAMA: BULTZADA POLITIKOA

1.1 HELBURUA: BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA ETA EBALUAZIOA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
1.1.1 Urteko segimendu tresnak ezartzea: txostenak eta bilerak egitea pertsonal politikoarekin zein teknikoarekin, elkarteen mugimenduarekin eta agente sozialekin.	Plangintza bilerak urtero egitea Berdintasun Unitatearekin, sei udalerrietako alkateekin, Batzorde Politikoarekin, Batzorde Teknikoarekin eta Gorbeialdeko Berdintasun Foroarekin.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa. Batzorde Teknikoa. Gorbeialdeko udalerrriak zein Kuadrilla.	2.2 Garatutako egiturak	2019; 2020;2021;2022
1.1.2 Planaren iraunaldiaren amaieran plana osatzeko urteko plan operatiboak egitea.	Bi Batzordeekin eta Foroarekin egindako bileretan adostutako akordioak jasotzen diren Urteko Plan Operatiboa urtero egitea.	Batzorde Politikoa. Batzorde Teknikoa. Berdintasun Foroa.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa	2019; 2020;2021;2022
	Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrean Urteko Plan Operatiboa urtero onestea eta Batzorde Politikora zein Batzorde Teknikoa eta Berdintasun Forora bidaltzea.	Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarra. Batzorde Politikoa. Batzorde Teknikoa.	2.2 Garatutako egiturak	2019; 2020;2021;2022
1.1.3 Emaitzak eta lorpenak agerian jartzen dituzten urteko segimendu memoriak egitea.	Urteko Segimenduaren Memoria bat egitea, TBerdin segimendu eta ebaluazio tresnari dagokionez.	Berdintasun Unitatea.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa	2019; 2020;2021;2022
	Segimenduaren Memoria urtero onestea Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrean, eta Batzorde Teknikora eta Berdintasun Forora bidaltzea.	Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarra. Batzorde Politikoa. Batzorde Teknikoa.	2.2 Garatutako egiturak	2019; 2020;2021;2022



1.2 HELBURUA: BERDINTASUNERAKO POLITIKEN GARAPENERAKO AURREKONTUAK AREAGOTZEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
1.2.1 Urteko plangintza operatiboa egiteko beharrezko aurrekontuak onestea.	Sei udalerrietako alkateekin urteko bileretan, urteko Plan Operatiboaren beharrei dagokien aurrekontua adostea.	Gorbeialdeko udalerriak.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019; 2020;2021;2022
1.2.2 Berdintasunerako politikak finantzatzeko diru-laguntzak eskatzea.	Plan honen ekintzen finantzatzaileak izan daitezkeen erakundeetara diru-laguntzen eskaera bat urtero aurkeztea.	Batzorde Politikoa.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa	2019; 2020;2021;2022
	Urtero Berdintasunaren inguruko diru-laguntzaren deialdiei buruz Gorbeialdeko elkarteei informazio ematea eta gogoraraztea.	Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Foroa. Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeak.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019; 2020;2021;2022

1.3 HELBURUA: ARAUDIA GARATZEA BERDINTASUNA KONTUAN HARTUZ

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
1.3.1 Berdintasunerako ordenantza bat egitea Kuadrillak hautatutako udalerrri pilotu batean.	Berdintasunerako ordenantza bat egitea, proba pilotu moduan, Batzorde Politikoa hautatutako Gorbeialdeko udalerrri batean.	Batzorde Politikoa.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa	2021



I.BERDINTASUN PLANA
Gorbealdeko Kuadrilla

Ordenantza behin eginda, Hedatzeko Jardunaldi bat antolatzea, gainontzeko udalerriekin esperientzia partekatzeko eta zabaltzeko aukera baloratzekotan.	Batzorde Politikoa. Batzorde Teknikoa.	2.1.1 Produktu finalistak: ikerlanak, planak eta protokoloak egiteko prozesuak	2021
--	---	---	------

2. PROGRAMA: EZAGUTZAREN KUDEAKETA

2.1. HELBURUA: PERTSONAL POLITIKOA ZEIN TEKNIKOA BERDINTASUNERAKO FORMAKUNTZA ESKAINTZEA.

NEURRRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
2.1.1 Udal pertsonal politikoaren eta teknikoaren formazioari dagozkion beharren planifikatzea, AFArekin elkarlanean.	Urtero, definitutako ikastaroak antolatzea, AFArekin eta Plana ezartzeko baliabideak ekarri ditzaketen bestelako erakundeekin Formakuntza Planaren ezarpena koordinatuz: Emakunderen <i>Nahiko</i> , <i>Gizonduz</i> eta <i>Jabetuz</i> programak, eta <i>Virginia Woolf Basqueskola</i> formazio programa.	Berdintasun Unitatea.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019; 2020;2021;2022



2.2. HELBURUA: BARRUKO ETA KANPOKO KOMUNIKAZIOAN BERDINTASUNA TXERTATzea.

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
2.2.1 Udalerrietako eta Gorbeialdeko Kuadrillako erakunde komunikazioan hizkuntzaren zein irudien erabilera ez sexista egitea.	Kuadrillako webguneen eta komunikazioaren arduradunei gidalerro bat bidaltzea hizkuntzaren zein irudien erabilera ez sexista egiteko eta, zalantzak izanez gero, Berdintasun Unitatearekin kontsultatzeko.	Udalerrietako eta Kuadrillako Komunikazioaren arduradunak eta Gorbeialdeko Kuadrilla.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa.	2019;
	Pertsonal politikoari zein teknikoari aholkularitza ematea eskatzen dutenean.	Berdintasun Unitatea.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019; 2020;2021;2022
	Udalerrietako eta Kuadrillako webguneak eta Gorbeialdeko Aldizkaria berrikustea, hizkuntzaren zein irudien erabilera ez sexista egitea bermatzeko.	Udalerrietako eta Kuadrillako Komunikazioaren arduradunak eta Gorbeialdeko Kuadrilla.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa.	2019; 2020;2021;2022
2.2.2 Urtean zehar Berdintasunaren inguruan egiten diren ekintzak komunikatzea.	Plan hau ezartzeko dagozkion antolatzen diren ekintzak hedatzea udalerrietako eta Kuadrillako webguneetan, eta wasapen, mailen zein sare sozialen bidez.	Batzorde Politikoa. Berdintasun Unitatea.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa.	2019; 2020;2021;2022
	Gorbeialdeko Aldizkarian eta Gorbeialdeko komunikabideetan Berdintasunari buruzko berriak argitaratzea.	Udalerrietako eta Kuadrillako Komunikazioaren arduradunak eta Gorbeialdeko Kuadrilla. Berdintasun Unitatea.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa.	2019; 2020;2021;2022



3. PROGRAMA: LANERAKO PROZEDURETAN GENERO IKUSPEGIA.

3.1. HELBURUA: SEXUAREN ARABERA BEREZITAKO DATUAK JASOTZEA ETA ERABILTZEA.

NEURRRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
3.1.1 Gorbeialdeko Kuadrillako eta udalerrietako pertsonal teknikoari sexuaren arabera berezitako datuak jasotzeko tresnak garatzeko aholkularitza eta laguntza ematea.	Gorbeialdeko Kuadrillako eta udalerrietako pertsonal teknikoarekin bilera bat egitea jasotzen diren datuak berrikusteko eta datuak nola bereiztu ikusteko.	Batzorde Politikoa. Batzorde Teknikoa. Berdintasun Unitatea. Gorbeialdeko Kuadrilla eta udalerrriak.	1.1.1 Onuradun erregistratuekin	2019
	Jasotzen diren datuen zerrendarekin eta datuak sexuaren arabera bereizteko eta erabiltzeko gomendioei buruzko txosten bat egitea eta udalerrietako alkateei zein Gorbeialdeko Kuadrillako Presidenteari bidaltzea.	Batzorde Politikoa. Berdintasun Unitatea.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa.	2019
3.1.2 Lau urtetan behin, Berdintasun Planaren ebaluazioarekin batera, sexuaren arabera berezitako datuen erabilera eta ustiapena egitea, Kuadrillan Berdintasunerako Politiken ezartze-graduaren bilakaera aztertzeke.	Berezitako datuen memoria egitea eta Kuadrillako datuen bereizketaren betetzea ebaluatzea.	Batzorde Politikoa. Berdintasun Unitatea.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa.	2022

3.2. HELBRURUA: GENERO INPAKTUAREN EBALUAZIOAREN ESPERIENTZIA PILOTU BAT EGITEA.

NEURRRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
3.2.1. Pertsonal teknikoari tresnaren erabiltzearen inguruko formazioa eskaintzea proiektu pilotuak garatzen diren heinean.	Gorbeialdeko Kuadrillako zein Udalerrietako pertsonal teknikoari Genero Inpaktuaren Ebaluazioak egiteko metodologiaren inguruan formazioa eskaintzea, formazio-ekintza esperientzien bidez. Gorbeialdeko Kuadrillako adibide praktikoa bat erabiltzea formazio-ekintza hori egiteko.	Batzorde Politikoa. Berdintasun Unitatea.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2021



3.3. HELBURUA: KONTRATUETAN ETA DIRU-LAGUNTZETAN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK BARNEHARTZEA.

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
3.3.1 Gorbeialdeko udalerrietako eta Kuadrillako Berdintasunerako klausulak barne hartzen duten diru-laguntzen eta kontratazioen deialdien kopurua areagotzea.	Udalerrietako eta Kuadrillako diru-laguntzen deialdien zerrenda bat egitea, Berdintasun klausulak dituztenak eta zein klausula mota txertatzen duten zehaztuz.	Batzorde Politikoa eta Berdintasun Unitatea.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa.	2019
	Gorbeialdeko Kuadrillako Udaletan Legutioko esperientzia hedatzea Diru-laguntzen Plan Estrategikoan genero ikuspegia sartzean, eta jardun bide on hau ezartzea ahal denean.	Batzorde Politikoa eta Berdintasun Unitatea.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa.	2019
	Kontratazio deialdiak urtero definitzea genero ikuspegitik aztertzeke eta azterketaren eratorritako neurriak txertatzekotan.	Batzorde Politikoa eta Berdintasun Unitatea.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa.	2019; 2020;2021;2022

3.4. HELBURUA: PLAN SEKTORIALETAN ETA ZEHARKAKO PLANETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA.

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
3.4.1 Gorbeialdeko udalerrietan eta Kuadrillan ezartzen diren zeharkako planen eta plan sektorialen diseinuan pertsonal politikoari zein teknikoari aholkularitza ematea.	Genero Inpaktuaren Aurretiko Ebaluazioaren metodologiari buruzko informazio-formazio ekintza bat egitea, Plan Sektorialen edo zenbait urtetarako zeharkako planen diseinuari ekin zaionean, eta ezartzeko aholkularitza eskaintzea.	Batzorde Politikoa eta Berdintasun Unitatea.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019; 2020;2021;2022



4. PROGRAMA: KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA.

4.1. HELBURUA: ARABAKO FORU ALDUNDIKO KOORDINAZIO PROZESUETAN PARTE HARTZEA.

NEURRRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
4.1.1. Berdinbidean programaren urteko bileretara joatea eta parte hartzea.	AFAk eta Berdinbidean Zerbitzuak deitutako bileretara joatea eta han adostutako akordioetatik eratorritako koordinazio lanak egitea.	Batzorde Politikoa eta Berdintasun Unitatea.	2.2 Garatutako egiturak	2019; 2020;2021;2022
4.1.2. LAIAeskola programaren urteko bileretara joatea eta parte hartzea.	AFAk eta LAIAeskolaren Idazkaritza Teknikoak deitutako bileretara joatea eta han adostutako akordioetatik eratorritako koordinazio lanak egitea.	Batzorde Politikoa eta Berdintasun Unitatea.	2.2 Garatutako egiturak	2019; 2020;2021;2022
4.1.3. AFAk planteatutako Kuadrillak koordinatzeko prozesuetan parte hartzea.	Kuadrilletako Berdintasunerako Politikak koordinatzeko AFAk deitutako bileretara joatea eta han adostutako akordioetatik eratorritako koordinazio lanak egitea.	Batzorde Politikoa eta Berdintasun Unitatea.	2.2 Garatutako egiturak	2019; 2020;2021;2022

4.2. HELBURUA: EMAKUNDEK ETA EUDELEK ANTOLATUTAKO KOORDINAZIO ETA LANKIDETZA PROZESUETAN PARTEHARTZEA.

NEURRRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
4.2.1. Berdinsarea programaren urteko bileretara joatea eta parte hartzea.	Berdinsarea Zerbitzuak deitutako bileretara joatea eta han adostutako akordioetatik eratorritako koordinazio lanak egitea.	Batzorde Politikoa eta Berdintasun Unitatea.	2.2 Garatutako egiturak	2019; 2020;2021;2022
4.2.2. Beldur Barik programaren urteko bileretara joatea eta parte hartzea.	Beldur Barik programak deitutako bileretara joatea eta han adostutako akordioetatik eratorritako koordinazio lanak egitea.	Batzorde Politikoa eta Berdintasun Unitatea.	2.2 Garatutako egiturak	2019; 2020;2021;2022



5. PROGRAMA: PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA

5.1. HELBURUA: EPAIMAHAIETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN KOPURU OREKATUA SUSTATZEA.

NEURRRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
5.1.1. Pertsonal politikoari zein teknikoari epaimahaien osaerarako irizpidearen inguruko aholkularitza eskaintzea.	Epaimahaien pertsonal politiko edo tekniko arduradunekin bilerak egitea osaera parekidea errazten duten irizpideak barne hartzeko.	Batzorde Politiko, Batzorde Teknikoa eta Berdintasun Unitatea.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa	2019; 2020;2021;2022

5.2. HELBURUA: PARTE HARTZEKO ETA KONTSULTA ORGANOETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA.

NEURRRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
5.2.1. Pertsonal politikoari zein teknikoari organoen eta parte hartzeko zein kontsulta prozesuen diseinuan, osaeran eta dinamizazioan genero ikuspegia txertatzeko aholkularitza eskaintzea.	Organoen eta parte hartzeko zein kontsulta prozesuen diseinuan, osaeraren eta dinamizazioaren pertsonal politiko edo tekniko arduradunekin bilerak egitea, osaera parekidea errazten duten irizpideak barne hartzeko.	Batzorde Politiko, Batzorde Teknikoa eta Berdintasun Unitatea.	2.1.2 Mainstreamingaren inguruko dokumentuei zein eskuhartzei buruzko informazioa	2019; 2020;2021;2022



II. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

6. PROGRAMA: AHALDUNTZE PERTSONALAREN ALDEKO LAGUNTZA.

6.1. HELBURUA: GORBEIALDEKO HERRITARRAK SENSIBILIZATZEA BEREN KOMUNITATERAKO BERDINTASUNA ONURAGARRIA DELA AZALDUZ, BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA LOTZEN DUTEN ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN DESBERDINTASUNA ARAZO GARRANTZITSUTZAT JOTZEN DUTEN PERTSONEN KOPURUA AREAGOTUZ.

NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
6.1.1. Gorbeialdeko Kuadrillan eta bere sei udalerrietan Arabako Jabekuntza Eskolaren, LAIAeskolaren ekintzak planifikatzeko emakumeen elkartearen mugimendua urtero laguntzea.	Gorbeialdeko Berdintasun Foroarekin eta Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeekin bilerak egitea, ahalduz dagozkion emakumeen interesak definitzeko, foro bakoitzak nahi duen aldizkakotasunarekin. Planifikatutako ekintzak antolatzea eta ebaluatzea.	Gorbeialdeko Berdintasun Foroa. Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeak.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019; 2020;2021;2022
6.1.2. Egun seinatuak ospatzea, Berdintasunerako aurrerapausoak eta erronkak agerian jartzeko sensibilizazio zein formazio ekintzekin: M8, M17, E28.	Gorbeialdeko Berdintasun Foroarekin eta Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeekin definitutako interesaren arabera kanpainak antolatzea urtero, beste erakunde batzuetatik-AFAtik, Emakundetik- datozen baliabideak aprobetxatzeko beharra eta esfortzuak bateratzearen garrantzia estrategikoa kontuan hartuz.	Gorbeialdeko Berdintasun Foroa. Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeak.	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2019; 2020;2021;2022
6.1.3. Urtero Berdintasunerako Kuadrillako Topaketaren antolaketaren koordinatzea, Gorbeialdeko Berdintasun Foroaren eta Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeen partaidetzarekin.	Eskualdeko Topaketa antolatzea eta ebaluatzea Gorbeialdeko Berdintasun Foroaren, Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeen partaidetzarekin.	Gorbeialdeko Berdintasun Foroa. Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeak.	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2019; 2020;2021;2022
6.1.4. Gorbeialdeko Ingurumen, Kultura, Kirol eta Euskara elkartearen mugimenduari emakumeak Berdintasunerako ekintzetan inplikatzeko.	Kultura, Euskara eta Ingurumen Zerbitzuekin koordinatzea Berdintasunerako ekintzekin harremanetan dauden elkartearen artean hedatzearen.	Batzorde Teknikoa. Berdintasun Unitatea.	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2019; 2020;2021;2022



6.2. HELBURUA: KIROLEAN GENERO ARRAKALAK GUTXIAGOTZEA, EMAKUMEEN ZEIN NESKEN PARTAIDETZA AREAGOTUZ, ETA KIROL ELKARTEETAN ZEIN GORBEIALDEKO KUADRILLAKO ERAKUNDEEN ESKAINTZAN GENERO IKUSPEGIA INTEGRATUZ.

NEURRIAK	NEURRIAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
6.2.1. Kirol politikoak garatzea genero ikuspegitik.	Gorbeialdeko emakumeei kontsultatzea, bereziki, kirol elkarteetan parte-hartzen dutenei, kirolaren inguruan beren beharrei buruz, Kuadrillako ekintzetan genero ikuspegia txertatzea sustatzekotan.	Gorbeialdeko Kuadrillako eta Udaletako Kirol Zerbitzuak	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2020
6.2.2. Kultura politikoak garatzea genero ikuspegitik.	Jaien edukiak eta jaietan parte hartzea genero ikuspegitik aztertzea.	Gorbeialdeko Kuadrillako eta Udaletako Kultura Zerbitzuak. Kuadrilletako Batzarrak eta Jai Batzordeak.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019; 2020;2021;2022
	Kultura Teknikariak biltzea, urtero udalerrri bakoitzeko Kultura arloko ekitaldirik nabariena definitzeko, eta genero ikuspegia txertatzeko ideien inguruko aholkularitza eskaintzeko.	Gorbeialdeko Kuadrillako eta Udaletako Kultura Zerbitzuak.	2.1.1 Produktu finalistak: ikerlanak, planak eta protokoloak egiteko prozesuak.	2019; 2020;2021;2022



6.3. HELBURUA: AUTOZAINKETA OHIKO PRAKTIKAK GARATZEN DITUZTEN GORBEIALDEKO EMAKUMEEN KOPURUA AREAGOTZEA ETA GORBEIALDEKO KUADRILLAN ARRETA SANITARIOA HOBETZEA, ESKUHARTZEAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATUZ.

NEURRIAK	NEURRIAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
6.3.1. Indarkeria matxistari aurre egiteko Protokoloaren esparruan, osasun zentroekin harremana aprobetxatzea kuadrillako emakumeen eskaerak jasotzeko eta arreta hobetzeko neurriak baloratu ahal izateko jarduerak antolatzearren.	Generoari buruzko topaketak antolatzea eta Gorbeialdeko Kuadrillako Osasun Zentroak zein Kontsultategiak Osasunari eta elkarteen mugimenduaren emakumeak parte hartzera gonbidatzea, hobetzeko neurri komunak elkarrekin definitzeko.	Indarkeria matxistari aurre egiteko Protokoloaren mahai teknikoaren osasun ordezkariak. Berdintasun Unitatea.	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2019.
6.3.2. Urtero maiatzaren 28a, Emakumeen Osasunaren aldeko Nazioarteko Eguna ospatzea, autozainketa sustatzeko ekitaldiak antolatuz.	Maiatzaren 28a, Emakumeen Osasunaren aldeko Nazioarteko Eguna ospatzea antolatzea, jarduerekin eta ekintzekin Gorbeialdeko Berdintasun Foroarekin eta Aramaioko zein Zigoitiko Berdintasunerako taldeekin koordinazioan. Aurreko neurriari ekiteko egun hau aprobetxatzea.	Gorbeialdeko Berdintasun Foroa. Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeak.	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2019; 2020;2021;2022



7. PROGRAMA: AHALDUNTZE KOLEKTIBOAREN ARTEKO LAGUNTZA.

7.1 HELBURUA: GORBEIALDEKO MUGIMENDU FEMINISTA SENDOTZEA, HOTS, FEMINISMOA EZAGUTZEN DUTEN, EUREN BURUA FEMINISTATZAT HARTZEN DUTEN, ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO ELKARTEETAN ZEIN JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN KOPURUA AREAGOTZEA.

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
7.1.1 Mugimendu feministaren aldeko laguntza ematea Gorbeialdeko emakumeen ahizpatasuna sustatzeko.	LAI Aeskolari dagokionez, plangintzaren zati bat erreserbatzea mugimendu feministarako zein emakumeen elkarteetarako coaching, aholkularitza eta jardunbide onen elkartrukatzeko ekintzak egiteko, ikuspegi dinamikotik, eta zortzi pertsona gutxienerako kopuruarekiko agertze-konpromisoarekin.	Gorbeialdeko mugimendu feministaren elkarteak.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2020
	Elkarte feministaren alde laguntzea, herritarrak erakartzen dituzten ospakizunak eta jaiak antolatzeko orduan, elkarte hau ezagut eta lagun ditzaten eta haien ekintzetan parte har ditzaten.	Gorbeialdeko mugimendu feministaren elkarteak. Gorbeialdeko Berdintasun Foroa. Zigoitiko eta Aramaioko Berdintasunerako Taldeak.	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2019; 2020;2021;2022
7.1.2 Borroka feministaren helburuak Gorbeialdean hedatzeko ekintzak egitea.	Zigoitiko Jardunaldi Feministak urtero antolatzea eta horietan Gorbeialdeko emakumeen partaidetza sustatzea.	Gorbeialdeko Berdintasun Foroa. Zigoitiko Berdintasunerako Taldea.	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2019; 2020;2021;2022
	EAEko beste eskualdetako eta beste kuadrilletako esperientziak bilatzea, zeintzuk ekitaldietan feminismoa zabalatzeko arrakastatsuak izan diren. Eta egingarriena baloratzen dena Gorbeialdera eramatea, proba pilotu moduan.	Berdintasun Unitatea	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2021



7.2 HELBURUA: ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN GORBEIALDEKO KUADRILLAKO EMAKUMEEN MUGIMENDUAREN ERAGIN HANDIAGOA LORTZEA.

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
7.2.1. Arabako Foru Batzordean parte hartzea erraztea eta sustatzea.	Gorbeialdeko elkarten mugimenduari Foru Batzordearen jardueren eta deialdien inguruan informatzea eta parte hartzea erraztea eta sustatzea.	Gorbeialdeko Berdintasun Foroa. Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasunerako Taldeak.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019; 2020;2021;2022



8. PROGRAMA: AHALDUNTZE POLITIKOAREN ALDEKO LAGUNTZA

8.1. HELBURUA: ERABAKIAK HARTZEKO POSTUETAN EMAKUMEEN ERAGINA AREAGOTZEKO LAGUNTZA ZEIN TREBAKUNTZARAKO PROGRAMAK AREAGOTZEA.

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
8.1.1. Gorbeialdeko Kuadrillako emakume hautetsiei laguntzeko Virginia Woolf Basqueskolan parte hartzearekin jarraitzea.	Virginia Woolf Basqueskolako Idazkaritza Teknikoarekiko bileretara joatea eta han adostutako lanak betetzea.	Berdintasun Unitatea Batzorde Politikoa	2.2 Garatutako egiturak	2019; 2020;2021;2022
8.1.2. Gorbeialdeko Kuadrillako Kontzejuetako emakume hautetsien ahalduntzea sustatzea topaketa espazioak sortuz.	Gorbeialdeko kontzejuetako emakume hautetsien topaketak antolatzea. Beren beharrei erantzuteko kanpainak edo aholkularitza diseinatzea.	Berdintasun Unitatea	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2022



III. BIZITZAREN JASANGARRITASUNA: BALIABIDEEN ETA ZAINKETEN BANAKETA

9. PROGRAMA: ZAINKETEN BANAKETA, EKONOMIA FEMINISTA ETA EKOFEMINISMOA

9.1. HELBURUA: BIZITZAREN JASANGARRITASUNEAN OINARRITUTAKO GARAPEN EREDURA GORBEIALDETIK NOLA LAGUNDU AZTERTZEKO EZTABAIDA PUBLIKOA SUSTATZEA.

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
9.1.1. Gorbeialdeko Kuadrillako Eskola Agenda 21 eta ikastetxeetan hezkidetzak proiektuak koordinatzea, izaki interdependienteak eta eko-dependienteak gairela barneratzeari eta bizitzaren jasangarritasunari lotuta, eta IGEak, ikasleak eta irakasleak inplikatzeko.	Agenda Lokal 21 en arduradunarekin eta Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun arloaren arduradunarekin bilerak egitea ikastetxeetan egin daitezkeen baterako ekintzak koordinatzeko eta Eskola Agenda 21 en ekintzetan genero ikuspegia sartzearen. Ikastetxeetan bilerak egitea ekintzak gauzatzeko.	Berdintasun Unitatea. Gorbeialdeko Kuadrillako Ingurumen Zerbitzua. Batzorde Politikoa.	2.2 Garatutako egiturak.	2019; 2020;2021;2022
9.1.2. Agenda Lokal 21 en eta Berdintasun Zerbitzuaren plangintza koordinatzea.	Baterako ekintzak diseinatzea eta ezartzea, proposamen ekofeministak eta ekonomia feministaren proposamenak, jolas-ikuspegitik eta partaidetza-ikuspegitik; zehazki, herritarrengan Amaia Pérez Orozok interes handia sortarazten du.	Berdintasun Unitatea. Gorbeialdeko Kuadrillako Ingurumen Zerbitzua. Batzorde Politikoa.	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2019; 2020;2021;2022
	Ingurumen, Berdintasun arloaren eta Landa Garapenerako Elkartearen arduradunekin baterako ekintzak egitea, ingurumenaren eta bizitzaren jasangarritasunerako Gorbeialdeko emakumeen ekarpenen garrantzia azpimarratzeko eta gizonen erantzunkidetasuna sustatzekotan.	Berdintasun Unitatea. Gorbeialdeko Kuadrillako Ingurumen Zerbitzua. Batzorde Politikoa.	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2019; 2020;2021;2022
	Diseinatzen diren baterako ekintzen segimendua egitea eta koordinatzea.	Berdintasun Unitatea. Gorbeialdeko Kuadrillako Ingurumen Zerbitzua. Batzorde Politikoa.	2.2 Garatutako egiturak.	2019; 2020;2021;2022



9.2. HELBURUA: GORBEIALDEKO KUADRILLAKO IKASTETXEETAN HEZKIDETZA INTEGRATZEN JARRAITZEA, GENERO IKUSPEGIA TXERTATUZ KULTURAN, POLITIKAN ZEIN PRAKTIKETAN, ETA HEZIKETA PROIEKTUEN EDUKIEN ARTEAN EMAKUMEEN ZEIN FEMINISMOAREN KONTRIBUZIO SOZIALA BARNE HARTUZ.

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
9.2.1. Hezkidetzaren proiektuen koordinazioa eta bultzada Gorbeialdeko ikastetxeetan.	Hezkidetzaren ekintzak egiteko urteko aurrekontua sortzea.	Berdintasun Unitatea. Gorbeialdeko Kuadrillako Ingurumen Zerbitzua. Batzorde Politikoa.	2.1.2 Mainstreamingari buruzko dokumentuen eta eskuhartzeen informazioa.	2019; 2020;2021;2022
	Gorbeialdeko ikastetxeetan urtero aholkularitza ematea, irakasleak, ikasleak eta IGEak inplikatzeko dituzten hezkidetzaren proiektuak antolatzea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa. Gorbeialdeko ikastetxeak.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019; 2020;2021;2022
	IGEi aholkularitza ematea erakunde finantzatzaileei beren proiektuetarako diru-laguntzak eskatzeko.	Gorbeialdeko Kuadrillako Hezkidetzarako koordinazio mahaia sortzea, Kuadrillako hezkidetzaren proiektuak koordinatzeko	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa. Gorbeialdeko ikastetxeak.	2.2 Garatutako egiturak
9.2.2. Gorbeialdeko Kuadrillako hezkuntza ez formalean genero ikuspegia txertatzen jarraitzea.	Hezkidetzaren formazio-ekintza prozesuak egitea aisialdiko begiraleentzat.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa. Gorbeialdeko aisialdi zentroak.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019; 2020;2021;2022
9.2.3. Gorbeialdeko Kuadrillako Hezkidetzaren Formalerako eta Ez formalerako Diagnostiko bat eta Plan Integral bat egitea.	Gorbeialdeko Kuadrillako Hezkidetzaren Formalerako eta Ez formalerako Diagnostiko bat eta Plan Integral bat egiteko proiektu bat kontratatzea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa.	2.1.1 Produktu finalistak: ikerlanak, planak eta protokoloak egiteko prozesuak.	2020



10. PROGRAMA: BALIABIDEEN ETA ESPAZIOEN BANAKETA BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO

10.1. HELBURUA: POBREZIAREN FEMINIZAZIOA GUTXITZEA, GIZARTE ZERBITZUAK EGOKITUZ ETA GORBEIALDEKO LANDA-EREMUKO EMAKUMEAU KUADRILLAKO ENPLEGURA SARTZEA SUSTATUZ

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
10.1.1. Zaintzen banaketaren eta pobrezien feminizazioaren azterketa.	Gorbeialdeko Udalerrietako eta Kuadrillako pertsonalaren eta herritarren artean pobrezien feminizazioari buruzko ikerlanaren hedatze prozesua egitea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa. Batzorde Teknikoa.	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunekin	2019
	Arduradun politikoekin eta teknikoekin prozesuak diseinatzea, gomendioak ezartzekotan.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa. Batzorde Teknikoa.	2.1.1 Produktu finalistak: ikerlanak, planak eta protokoloak egiteko prozesuak.	2019
	Hartutako neurrien jarraipena egitea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa. Batzorde Teknikoa.	2.2 Garatutako egiturak	2020;2021;2022
10.1.2. Gorbeialdeko Landa Garapenerako Elkartean eta Sustapen Ekonomikorako Sailean genero ikuspegia txertatzea.	Gorbeialdeko Landa Garapenerako Planean genero ikuspegia txertatzea, Plangintzarako dokumentu berria egin denean.	Berdintasun Unitatea. Sustapen Ekonomikorako Zerbitzua.	2.1.1 Produktu finalistak: ikerlanak, planak eta protokoloak egiteko prozesuak.	2021
	Elkarrekin diseinatutako ekintzen segimendua egitea eta koordinatzea.	Berdintasun Unitatea. Sustapen Ekonomikorako Zerbitzua.	2.2 Garatutako egiturak	2019; 2020;2021;2022



10.2. HELBURUA: GORBEIALDEKO UDALERRIETAN HIRIGINTZA PLANGINTZARAKO ETA GARRAIO JASANGARRIETARAKO IRIZPIDEAK EZARTzea, ZEINTZUEK PERTSONEN AUTONOMIA ETA ERANTZUNKIDETASUNA ZEIN KONTZILIAZIOA ERRAZTEN DITUZTEN.

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
10.2.1. Gorbeialdeko Kuadrillako Udaletako HAPOetan genero ikuspegia integratzea.	HAPOA egingo duten edo HAPOaren aldaketa egingo duten udalerrietako hirigintza araudiaren Genero Inpaktuaren Ebaluazio bat egitea.	Gorbeialdeko Udaletako Hirigintza Zerbitzuak.	2.1.1 Produktu finalistak: ikerlanak, planak eta protokoloak egiteko prozesuak.	2019; 2020;2021;2022
	Pertsonal politiko zein tekniko arduradunentzat Hirigintza inklusiboari buruzko formazio bat egitea.	Gorbeialdeko Udaletako Hirigintza Zerbitzuak.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019
10.2.2. Egingo den Arabako Hiriarteko Garraioaren Plan Integralaren landa-eremuko herritarren higikortasun beharren genero azterketan parte hartzea.	AFAk landa-eremuko herritarren higikortasun beharren genero azterketarako ekintza egingo duenean, Gorbeialdeko udalerrietako emakumeen ekarpenak jasotzea lan-taldeak antolatzea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa.	2.1.2 Mainstreamingari dagozkion dokumentuari eta eskuhartzei buruzko informazioa.	2019; 2020;2021;2022

IV. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

11 PROGRAMA: INDARKERIA MATXISTAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

11.1. HELBURUA: BERDINTASUNAREN ETA INDARKERIA MATXISTAREN ARTEKO LOTURA AGERIAN JARTZEN DUTEN PROGRAMETAN ETA JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN KOPURUA AREAGOTZEA.

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
11.1.1. Azaroaren 25a ospatzeko kanpainak egitea, erakunde mugimenduekin antolatuta.	Azaroaren 25a urtero ospatzea AFArekin, Gorbeialdeko Berdintasun Foroarekin eta Aramaioko eta	Gorbeialdeko Berdintasun Foroa eta Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasun Taldeak.	1.1.3 Kanpainen eta jaien onuradunekin	2019; 2020;2021;2022



Zigoitiko Berdintasun Taldeekin koordinazioan.				
11.1.2. Indarkeria matxistak gaitzesteko ekintza publikoak egitea eraso hauek plazaratzen direnean, biziraunei errespetua bermatuz, egia hedatzea eta bizitakoaren aintzatespen soziala bermatzeko emakumeei protagonismoa emanez, eta berbiktimizazioa saihestuz.	Indarkeria matxistaren adierazpen publikoak daudenean, gaitzespen ekintza publikoak antolatzea, indarkeria horri aurre egin dioten emakumeen adostasunarekin eta gainbegiratzearekin.	Gorbeialdeko Berdintasun Foroa eta Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasun Taldeak.	1.1.1 Onuradun erregistratuekin	2019; 2020;2021;2022
11.1.3. Gorbeialdeko udalerrietako jaietan indarkeria sexista prebenitzeko ekintzak egitea.	Indarkeria matxista prebenitzeko eta indarkeria matxistarik gabeko zein berdintasunaren aldeko jaiak ospatzea bermatzeko neurriak udalerrri bakoitzeko elkarteen mugimendurekin diseinatzea, jaiak ospatu baino lehen.	Gorbeialdeko Berdintasun Foroa eta Aramaioko eta Zigoitiko Berdintasun Taldeak. Jaiak antolatzeko kudeaketan parte hartzen duten Gorbeialdeko erakunde feministak. Gorbeialdeko udalerrri bakoitzeko Kultura elkarteak edo bestelakoak.	1.1.3 Kanpainen eta jaien onuradunekin	2019; 2020;2021;2022



11.2. HELBURUA: BERDINTASUNAREN ETA INDARKERIA MATXISTAREN ARTEKO ERLAZIOA ANTZEMATEN DUTEN GAZTEEN KOPURUA AREAGOTZEA.

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
11.2.1. Beldur Barik programan parte hartzea, kuadrillako partaidetza koordinatuz.	Beldur Barik programa ezartzeko beharrezko ekintzak diseinatzea, Gorbeialdeko kuadrillako ikastetxeekin, gaztelekuekin elkarlanean.	Berdintasun Unitatea Gorbeialdeko ikastetxeak. Gorbeialdeko aisialdirako zentroak.	1.1.1 Ez erregistratutako onuradunak.	2019; 2020;2021;2022
	Adostutako ekintzak antolatze eta ebaluatzea.	Berdintasun Unitatea Gorbeialdeko ikastetxeak. Gorbeialdeko aisialdirako zentroak.	1.1.3 Kanpainen eta jaien onuradunekin	2019; 2020;2021;2022
11.2.2. Gorbeialdeko ikastetxeek indarkeria matxista prebentziorako baliabideetan parte hartzea hedatzea eta sustatzea. Baliabide horiek EAEko udaletan eskuragarri daudenak dira.	Gorbeialdeko ikastetxeetan "Hitz kolpez" programa edo bestelakoak ezartzea koordinatzea.	Berdintasun Unitatea Gorbeialdeko ikastetxeak. AFA.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019; 2020;2021;2022



12. PROGRAMA: ANTZEMATEA, ARRETA KOORDINATUA ZEIN INTEGRALA, ETA KALTEAREN ERREPARAZIOA

12.1. HELBURUA: INDARKERIA MATXISTAREN INGURUKO EZAGUTZA AREAGOTZEA, DERIBAZIOA HOBETZEKO, BIZIRAUNEI ARRETA INTEGRALA ETA KOORDINATUA BERMATZEKO AHALDUNTZEAREN IKUSPEGITIK ETA KALTEAREN ERREPARAZIOA.

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA
12.1.1. Giza Eskubideen eta erreparaziorako eskubidearen ikuspegitik Indarkeria Matxistaren aurkako I. Plana egitea, 2016an Gorbeialdeko Kuadrillan egindako Indarkeria Matxistaren egoeraren Diagnostikoaren emaitzak kontuan hartuz.	Gorbeialdeko Kuadrillako Giza Eskubideen Ikuspegitik Indarkeria Matxistaren aurkako I. Plana egiteko prozesua kontratatzea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa.	2.1.1 Produktu finalistak: ikerlanak, planak eta protokoloak egiteko prozesuak	2021
12.1.2. Protokoloaren ezarpena koordinatzea.	Gorbeialdeko Kuadrillako Indarkeria Matxistaren aurkako Protokoloaren Erakunde arteko Koordinazio-Mahaia osatzen duen pertsonalari formakuntza eskaintzea.	Gorbeialdeko Indarkeria Matxistaren aurkako Protokoloaren Erakunde arteko Batzorde Teknikoa.	1.1.2 Onuradun erregistratuekin	2019; 2021.
	Protokoloaren Erakunde arteko Koordinazio mahaiaren bilerak urtero antolatzea.	Gorbeialdeko Indarkeria Matxistaren aurkako Protokoloaren Erakunde arteko Batzorde Teknikoa.	1.2.1 Indarkeria matxistaren arreta	2019; 2020;2021;2022



I ERANSKINA_KUADRILLAKO PLANA UDALERRIETAKO ERREALITATEARI MOLDATZEA

ARRATZUA-UBARRUNDIAN PLANIFIKATUTAKO EKINTZAK

GOBERNU ONA ARDATZA

1. PROGRAMA: BULTZADA POLITIKOA

1.1 HELBURUA: Berdintasunerako plangintza areagotzea zein hobetzea, eta ebaluazioa.

1.1.1 Urteko jarraipenerako tresnak ezartzea: txostenak eta bilerak egitea pertsonal politikoarekin zein teknikoarekin, elkarteen mugimenduarekin eta agente sozialekin.

Plangintza bilerak urtero egitea Berdintasun Unitatearekin, sei udalerrietako alkateekin, Batzorde Politikoarekin, Batzorde Teknikoarekin eta Gorbeialdeko Berdintasun Foroarekin.

1.1.2 Planaren iraunaldiaren amaieran plana osatzeko urteko plan operatiboak egitea.

Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrean Urteko Plan Operatiboa urtero onestea eta Batzorde Politikora zein Batzorde Teknikora eta Berdintasun Forora bidaltzea.

Bi Batzordeekin eta Foroarekin egindako bileretan adostutako akordioak jasotzen diren Urteko Plan Operatiboa urtero egitea.

1.1.3 Emaitzak eta lorpenak agerian jartzen dituzten urteko jarraipenerako memoriak egitea.

Urteko Jarraipenerako Memoria bat egitea, TBerdin jarraipen eta ebaluazio tresnari dagokionez.

Jarraipenaren Memoria Arratzua-Ubarrundiako Batzarrean eta Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrean urtero aurkeztea, eta Batzorde Politikora, Batzorde Teknikora eta Berdintasun Forora bidaltzea beren onespena emateko.

1.2. HELBURUA: Berdintasunerako politikak garatzeko aurrekontuak areagotzea

1.2.1 Urteko plangintza operatiboa egiteko beharrezko aurrekontuak onestea.

Arratzua-Ubarrundiako alkatearekin urteko bileran, urteko Plan Operatiboaren beharrei dagokien aurrekontua adostea.

1.2.2 Berdintasunerako politikak finantzatzeko diru-laguntzak eskatzea.

Arratzua-Ubarrundiako Udalak AFAn diru-laguntzarako eskaera aurkeztea, eta gainontzeko udalerrietan Emakunderen diru-laguntza eskatzean parte hartzea baloratzea Kuadrillaren izenean.

Plan honen ekintzen finantzatzaileak izan daitezkeen erakundeetara diru-laguntzen eskaera bat urtero aurkeztea.

Urtero Berdintasunaren inguruko diru-laguntzaren deialdiei buruz Arratzua-Ubarrundiako elkartei informazioa ematea eta gogoraraztea.

1.3. HELBURUA: Berdintasunerako araudia garatzea

1.3.1 Berdintasunerako ordenantza bat egitea Kuadrillak hautatutako udalerrri pilotu batean.

Berdintasunerako ordenantza bat egitea, proba pilotu moduan, Batzorde Politikoak hautatutako Gorbeialdeko udalerrri batean.

Ordenantza behin eginda, hedatzeko Jardunaldi bat antolatzea, gainontzeko udalerrietan esperientzia partekatze eta zabaltzeko aukera baloratzekotan.



2. PROGRAMA: EZAGUTZAREN KUDEAKETA

2.1 HELBURUA: Pertsonal politikoari eta teknikoari Berdintasunaren inguruko formazioa eskaintzea.

2.1.1 Udaleko pertsonal politikoaren eta teknikoaren behar formatiboen plangintza egitea AFArekin koordinazioan.

Urtero, Arratzua-Ubarrundiako pertsonal politikoak Berdintasun Zerbitzuak antolatutako ikastaroetan parte hartuko du, eta behar denean Udaleko pertsonal teknikoaren parte-hartzea bultzatuko da.

Kuadrillako Formazio Plana egitean parte hartzea.

2.2 HELBURUA: Barruko zein kanpoko komunikazioan berdintasuna sartzea.

2.2.1 Udaletako eta Gorbeialdeko Kuadrillako komunikazioan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitea.

Arratzua-Ubarrundiako pertsonal politikoak eta teknikoak Udalarari dagozkion barruko zein kanpoko komunikazioetan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egingo dute; zalantzaren bat izanez gero, Berdintasun Zerbitzuarekin kontsulta egingo dute.

Arratzua-Ubarrundiako alkateak Berdintasun Zerbitzuak bultzatzen dituen erabilera ez sexistari buruzko ekimenak sustatuko ditu; halaber, honen inguruan kuadrillak sortutako gidalerroari ekingo dio eta pertsonal teknikoak zein politikoak betetzea sustatuko du.

Arratzua-Ubarrundiko Udaleko webgunea berrikustea, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista bermatzeko.

2.2.2 Urtean zehar egiten diren Berdintasunaren inguruko ekintzak komunikatzea.

Plan honen ezartzearekin lotutako ekintzak hedatzea Arratzua-Ubarrundiko Udaleko webgunean, ,whatsAppean zein mailen bidez eta sare sozialetan.

Berdintasunaren inguruko berriak argitaratzea Gorbeialdeko Aldizkarian eta Gorbeialdeko komunikabideetan.



3. PROGRAMA: GENERO IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN

3.1 HELBURUA: Sexuen arabera bereizitako datuak jasotzea eta erabiltzea

3.1.1 Gorbeialdeko Kuadrillako eta udalerrietako pertsonal teknikoari sexuaren arabera bereizitako datuak jasotzeko tresnak garatzeko aholkularitza eta laguntza ematea.

Arratzua-Ubarrundiako Udalean jasotzen diren datuen zerrendarekin eta datuak sexuaren arabera bereizteko eta erabiltzeko gomendioei buruzko txosten bat egitea. Txostena adostea eta Alkateak pertsonal teknikoari bidaliko dio betetzekotan.

Arratzua-Ubarrundiako Udaleko pertsonal teknikoarekin bilera bat egitea jasotzen diren datuak berrikusteko eta datuak nola bereiztu ikusteko.

3.1.2 Lau urtetan behin, Berdintasun Planaren ebaluazioarekin batera, sexuaren araberako bereizitako datuen erabilera eta ustiapena egitea, kuadrillan Berdintasunerako Politiken ezartze-graduaren bilakaera aztertze.

Bereizitako datuen memoria egitea eta Kuadrillako datuen bereizketaren betetzea ebaluatzea.

3.2 HELBURUA: Genero inpaktuaren ebaluazioaren esperientzia pilotu bat egitea.

3.2.1 Pertsonal teknikoari tresnaren erabilpenaren inguruko formazioa eskaintzea proiektu pilotuak garatzen diren heinean.

Gorbeialdeko Kuadrillako zein Udalerrietako pertsonal teknikoari Genero Inpaktuaren Ebaluazioak egiteko metodologiaren inguruan formazioa eskaintzea, formazio-ekintza esperientzien bidez.

Gorbeialdeko Kuadrillako adibide praktikoa bat erabiltzea formazio-ekintza hori egiteko.

3.3 HELBURUA: Kontratuetan eta diru-laguntzetan berdintasunerako klausulak barne hartzea.

3.3.1 Gorbeialdeko udalerrietako eta Kuadrillako Berdintasunerako klausulak barne hartzen duten diru-laguntzen eta kontratazioen deialdien kopurua areagotzea.

Kontratazio deialdiak agertzen direnean, genero ikuspegitik aztertzea eta azterketaren eratorritako neurriak txertatzea.

Legutioko esperientzia hedatzea diru-laguntzen Plan Estrategikoan genero ikuspegia sartzean, eta jardunbide egoki hau Arratzua-Ubarrundian ahal denean ezartzea.

Udalerrietako eta Kuadrillako diru-laguntzen deialdien zerrenda bat egitea, berdintasun klausulak dituztenak eta zein klausula mota txertatzen duten zehaztuz.

3.4. HELBURUA: Plan sektorialetan eta zeharkako planetan genero ikuspegia txertatzea.

3.4.1 Gorbeialdeko udalerrietan eta kuadrillan ezartzen diren zeharkako planen eta plan sektorialen diseinuan pertsonal politikoari zein teknikoari aholkularitza ematea.

